

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2020/2021 ikasturtea

**EMAKUMEEN BIZI
BALDINTZAK, ESPAINIAR
ESTATUKO KARTZELETAN**

Egilea: Intzara Mendinueta Lazkoz

Zuzendaria: Unai Vazquez Puente

Leioan, 2021eko ekainaren 1an.

AURKIBIDEA

Sarrera	2
1.Marko teorikoa	3
1.1.Zer da kartzela?	3
1.2. Kartzelen jatorria eta eboluzioa.....	3
1.3. Emakumeentzako kartzelaren jatorria eta eboluzioa	5
1.4. Espainiar estatuko kartzela.....	7
1.4.1. Generoan oinarrituriko kartzela motak.....	7
1.4.2. Emakumeen bizi baldintzak kartzelan.....	8
1.4.3. Modulu edo sailak	10
1.4.4. Kartzela sailkapenak eta bizitza erregimenak	11
1.4.5. Kartzela eta gizarte hezkuntza.....	13
2.Metodologia	14
2.1. Ikerketaren helburuak.....	14
2.2. Ikerketaren hipotesiak	15
2.3. Ikerketaren subjektuak	16
2.4. Datuak biltzeko tresna eta prozedurak deskribatzea.....	16
2.5. Prozedura.....	17
3. Ikerketaren emaitzak	17
4. Ondorioak.....	26
5. Etika eta datu pertsonalen babesa.....	29
Erreferentzia bibliografikoak	30
Eranskinak.....	32
1 Eranskina: Datuen erabilera	32
2. Eranskina: Galdera sorta	32

Sarrera

Izaera kualitatiboa duen lan honen funtsa, Emakumeek Espainiar Estatuko kartzelatan duten bizi baldintzak aztertzea izanen da. Gai hau aukeratzea erabaki nuen, batetik, kartzela gertutik bizi izan dudana, eta gaur egun ere bizi dudana errealitate bat delako. Bestetik, emakumeen gaiak interes handia pizten didalako. Eta azkenik, uste dudalako kartzelan hezkuntza eta gizarte hezitzaileen presentzia funtsezkoa dela, eremu zehatz batean behar asko eta ezberdinak dituzten pertsonak daudelako. Beraz, lan hau burutzeko asmoz, hiru eremuak uztartzea erabaki nuen.

Ikerketa honetan, emakumeek kartzelaren barruan dituzten bizi baldintzen atal eta eremu ezberdinak (higieneena, formakuntza, aisia, gradu progresioak, erregimen ezberdinak etb.) aztertzeaz gain, gizarte hezitzaileak eta hezkuntzak kartzelaren baitan dituzten funtzio eta zereginak ere aztertu ditut, beti ere genero ikuspuntua galdu gabe. Izan ere, hezkuntza, gizartean dauden oztopo sozial eta ekonomikoak gainditzeko, eta aldi berean, norbanakoen askatasuna lortzeko, bere biziko garrantzia duen tresna da (De Vincezi eta Tedesco, 2009; 1. orr). Hau da, norberak duen bizi kalitatean eragin eta ondorio zuzenak ditu bizi baldintzetan eragina duten arestian aipatutako faktore ezberdinak eta tartean hezkuntzak. Hezkuntza, norbanako zein kolektiboen bizi kalitatearen parte delarik.

Honetarako, marko teorikoan, ikerketa ardatz duten hainbat kontzeptu eta eremuekin osatu dut; kartzela, kartzelen historia, kartzelen gaur egungo errealitatea eta baita emakume presoena ere. Behin gaia kokatuta, ondoren ikerketak berak hartu du nagusitasuna; ikerketak dituen helburuak azaldu ditut, erabilitako metodologia zein prozedurak, eta ateratako datu zein informazioen berri emango dut azkenik. Amaitzeko, helburuei hertsiki lotuta dauden ondorioak adieraziko ditut.

1.Marko teorikoa

“Ez dut batere gogoko espetxe hitza, etxe daramalako bere baitan: gozotasun esparru bat, norbaitek suntsiketa eremu bat zuritzeko sortua. Etxea zurea da, baina kartzelan zu zara harena, eta zure lan guztia da ez zaitzan erabat desbizaratu.”

(Arisiti, 2018; 13.orr)

1.1. Zer da kartzela?

Kartzela, delitu baten ustezko errudunei edo kondenatuei, beraien askatasunaz ukatzeko erabiltzen den eraikinari deritzo (Barandiaran, Gurrutxaga eta Mujika, 2007; 504. orr). Eraikin hauek duten diseinu arkitektonikoaren bitartez, bertan atxikiturik dauden pertsonetako kontrol eta zaintza zorrotzak aurrera eramatea ahalbideratzen du. Honen bitartez, kartzelak eta kartzela sistemak, gizabanakoen gainean zigor fisikoak eta zuzentasun morala bilatzen saiatzen dira, hau da, kartzelaren xedea pertsonak eduki ditzaketen uste eta ideiarik errotuenak errefusatu eta aldi berean, gizartean ezarria edo inposatua dagoen diziplina eta ideologia txertatzen saiatzen dira. Honetarako, kartzelaren funtzionamenduaren baitan, arauak, kontrola, zuzentasuna, zigorrak eta diziplina funtsezko elementuak bilakatu dira (Pinochet, 2013; 290-291. orr).

Izan ere, gizarteko eliteek (burgeseak), beraien interesak defendatzeko eta era berean, gizartea menderatu eta kontrolatzeko erabiltzen duten tresna nagusienak dira zigorra eta kartzela. Hots, boteretik eta boterearentzat ezarritako kontrol sozialeko sistemak dira (Pinochet, 2013; 290-291. orr).

1.2. Kartzelen jatorria eta eboluzioa

Kartzela, kondenatuak giltzapean jartzea helburu duen erakunde bat bezala aurkitzeko, hau da, zigor gisa, norbanakoen askatasuna ukatzeko eta denbora tarte batez erregimen espezifiko baten pean jartzeko, XVIII. mende amaiera jo behar dugu. Nahiz eta, ezin dugu ahaztu, XVIII. mendea baino lehen, zigor modura beste metodo batzuk erabiltzen ziren: zigor fisikoak, zigor ekonomikoak, heriotza zigorrak... (Cerezo, 2007; 1 orr).

Erdi Aroan (V-XVI) eta Antzinako Erregimenean kartzelak ere egon bazeuden, baina ez zen zigor penala betetzeko espazio gisa erabiltzen, baizik eta geroago epaituko edo exekutatu zuten pertsonak atxikitzeko espazio gisa baizik. XVI eta XVII. mendeetan berriz, lan etxeak edo zuzenketa etxeen sorrera gauzatu zen, kartzelaratzeko

moduak eraldatzen joan zirelarik. Hauek, Europako hainbat estatu ezberdinetan sortu ziren, bertako egoera ideologiko eta sozio-ekonomikoaren ondorioz. Hau da, mende hauetan zehar gerrate ugari gauzatu ziren, pre-industrializazioa eman zen eta aldi berean erreforma protestantea burutu zen. Hala ere, espazio berri hauen sorrera, garaiko herrialde indartsu edo garrantzitsuetan ezarri zen, Ingalaterran, Frantzia eta Belgikan besteak beste (Cerezo, 2007; 2-3 orr).

Arestian aipatu bezala, XVIII. mendean kartzela zigorra, zigor sistemaren bizkarrezur gisa orokortzen da. Mende honetan, gauzatzen den zigor moldearen aldaketa hau, ezin daiteke garaiko prozesu politiko, ekonomiko eta sozialetatik bereizi. Aurretik ikusi dugun bezala, zigorren bilakaera prozesu ezberdin guztiak, garaiko testuinguruari eta herrialdearen berezitasunei loturik daude. Eraldaketa honek, funtsezko lau faktore izan zituen. Lehenengoa, ideia ilustratuen faktoreetan datza, hots, askatasun indibidualak eta jarrera humanitarioak eraikitzen edo gorpuzten hasteko, zigor fisikoak eta lan fortzatuak zigor gisa desagertzen hasten dira. Baina, aldi berean, kartzela zigorra proportzio eta zehaztasun idealetan kokatzen da. Hurrengo faktorea berriz, aldaketa sozio-ekonomikoari egiten dio erreferentzia. Izan ere, garai hartan, biztanleria asko handitu zen, lan mekanizatuaren hastapenak gauzatu ziren, immigrazio handiak eman ziren... Hirugarrena aldiz, Estatu Modernoaren sorrera da, hau da, kartzela erakunde iraunkorren antolaketa bere gain hartzeko egitura gisa eratzen da. Eta amaitzeko, ideia kristauen txertaketan oinarritzen da. Diziplina, espazioa eta denboraren banaketa idealetara erabat egokituko diren espazio eta zigorrak osatuz (Cerezo, 2007; 4-6 orr).

XIX. mendean, positibismoaren garai gorena bihurtzen da, honen eraginez, natur zientzien printzipioak gizartean eragin handia daukate. Tartean, klasifikazioaren eta helburu zuzentzailearen printzipioak garatzen dira, zigorraren eta hau gauzatzeko moduaren kontzeptu berriak sortu edo eratu zirelarik. Hau, garai honetan garatu eta ezartzen den ideologia liberal klasikoaren emaitza da. Hauen arabera, indarrean zegoen gizarte ordenenetik aldendu zen subjektua, zuzendu egin behar zen, bai ikuspuntu indibidual baita ikuspuntu kolektibo baten mesederako (Almeda, 2002; 56-59. orr).

Arestian aipatutakoaren ondorioz, kartzelaratuak ziren pertsonen gaineko sailkapen printzipioak gauzatzen hasi ziren. Hau da, legea edo gizarte-arauak hausten zituzten pertsonak beren baldintzen arabera sailkatzen hasten dira: pobreak, arloreak, eroak, gaixoak, etab. eta aldi berean, ezaugarrien arabera erakunde espezifiko mota

ezberdinetara zuzentzen hasi ziren. Ala ere, erakunde espezifiko hauen barruan ere, ezaugarri eta elementu mota ezberdinen araberrako sailkapena bultzatzen hasi ziren. Printzipio honekin batera, helburu zuzentzailearen printzipioak bultzatu zirelarik, hots, zigorraren helburuak zabaltzea dakar, horrela, prebentzioarekin eta larderiarekin batera, gizartera itzuli aurretik subjektuaren zuzentasuna bilatzen saiatzeko asmoz (Almeda, 2002; 56-59. orr).

XIX. mende erdialdetik aurrera sortu eta garatu zen kartzela ereduak (XVIII. mendean ezarritako diziplina eta zuzentasuna, eta XIX. mendean sortutako klasifikazioak nahasten eta uztartzen zituen sistema), XX. mendean zabalkunde handia izan zuen, Europa eta Latino Amerikan batez ere. Ala ere, sistema honetan oinarriturik, XX. mendetik aurrera, estatu bakoitza bere kartzela sistema propioa erakintzen hasi zen. Kartzela sistema hauek sortu eta garatzerako unean, estatu askok indibidualizazio zientifikoan oinarritutako prozedurak txertatu zituzten. Hots, arauak, zuzentasuna eta diziplina mantendu ezkeru, sailkapena malgutzea du helburu. Horrela, kartzelako egonaldiaren iraupena erregulatu, moldatu, norbanakoari egokitu edo ezabatuak izateko, banakako tratamendua ezartzea baliagarria suertatu zen (Ballesteros, 2010; 23-24. orr).

Arestian azaldu bezala, kartzelak gizartearekin batera eraldatu dira, eta XX. mendeko eraldaketa ez zen eszeptioa izan. Mende honetan, munduan hasi eta garatu zen globalizazio prozesuak, kartzela sisteman ere eragina izan zuen. Aurretik aipatu bezala, gizartearen indibidualizazio prozesuak presoak artatzeko edo tratatzeko era ere eraldatu baitzuen, indibidualizazio zientifikoan oinarritutako prozedurak txertatuz (Ballesteros, 2010; 23-24. orr).

1.3. Emakumeentzako kartzelaren jatorria eta eboluzioa

Kartzelaren jatorria eta eboluzioa zein izan den jakin ostean, hurrengo atal honetan, zehazki, emakumeen kartzelaren historiaren inguruan arituko naiz. Izan ere, emakumeen kartzelaren jatorria eta garapenak, arestian aipatutako ibilbidearekin lotura du. Nahiz eta generoaren ondorioz, hau da, emakume izate hutsagatik, emakumeentzako kartzela sistemak eboluzio eta zentzu ezberdina eduki du historian zehar.

Aurreko atalean azaldu bezala, XVIII. mende bitarteko kartzelak, prebentziorako edo epaiketa izan bitarteko etaparako giltzaperatzea zuten helburu. Baina emakumeen kartzela kasuan berriz, emakumeak zigortzeaz gain, helburu zuzentzaileak zituen. Hots,

joera moralizatzaile zuten, emakumeen izaera edo jarrera "biziotsuak" zuzentzera bideraturik baitzeuden. Honetarako, kartzela gisa etxe galerak eta miserikordia etxeak erabili zituzten, bertan, lana eta erlijiotasuna eguneroko jardunean presente egon zelarik. Hasiera batetik, eta batez ere XVIII. mendetik aurrera, kartzela sistema berriaren ezarpenarekin, emakumeei esleitutako gizarte rol eta funtzioekin lotura handia zuen zigor sistema eraiki zuten. Beraz, emakumeentzako zigor fisikoak kendu eta preso zeuden bitartean "emakumeentzako egokitutako" lan fortzatuak gauzatzen zituzten. Esan daiteke, mende honetako emakumeen kartzelak, hurrengo mendeetan garatu ziren kartzelen aitzindari zuzenak izan zirela (Ballesteros, 2010; 28-30. orr. in Almeda, 2002).

XIX. mendean positibismoaren garapena suertatzen da, aurreko atalean azaldu bezala, bertan klasifikazioaren eta helburu zuzentzailearen printzipioak gauzatzen direlarik. Honen ondorioz, erakundeen botere eta kontrol mekanismoak areagotzen (diziplina, zuzentasuna, arauak...) dira, honen xedea, presoak gizartetik aldentzea eta gizartearekin duen kontaktua gutxitzea edo ezeztatzea izango delarik. Emakumeen kasuan, helburu zuzentzaileak aurreko mendetik hasita inposatu eta ezartzen zaizkio, ala ere, erakundeen eta kontrol mekanismoen areagotzeak preso dauden emakumeak gizartetik aldentzea eta isolatzea lortzen du. Ondorioz, garai honetako emakumeen kartzelen zeregina, kasu honetan miserikordia etxeena, "desbideratutzat" jotzen ziren emakume taldeak zaintzea, gizartetik bereizi eta baztertzea, eta erlijio praktiken bidez jarrerak zuzentzea zen helburua (Ballesteros, 2010; 39-40. orr. in Almeda, 2002).

XIX. mende erdialdetik aurrera, kartzelak eta laguntza zentroak indar handiagoa hartzen dute. Hemendik aurrera, emakumeei ezartzen zaizkien zigorrak "adeitasunez" ezartzen hasten dira beti ere, "genero femeninoaren ahultasuna" oinarri gisa harturik. Kartzeletan emakumeei esleitutako lanak ere, "generoaren berekotzat" izaten ohi zirelarik (Ballesteros, 2010; 40. orr. in Almeda, 2002).

XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran, kartzela sistema berrien sorrerak eta ezarpenak, aldaketa sakonak eragin zituen, tartean kartzelen eraikuntza. Horrenbestez, emakumeentzako kartzela funtzioa betetzen duten miserikordia etxeak desagertzen joan ziren. Kartzelan, zigorra betetzeko entitate modura, zuzentasun morala, diziplina, arauak eta presoen klasifikazioa txertatu ziren. Emakumeen kasuan, gizona bezala konparatu ezkerro, preso zeuden emakumezkoak kuantitatiboki gutxiago zirenez, presondegiri urri batzuetan kontzentratu zituzten emakume guztiak. Honen eraginez, preso asko, beraien

jatorriko lekuetatik urrun zeuden, familia eta testuinguru hurbilarekiko deserrotzea gauzatzen zelarik. Gaienera, emakumeentzako kartzelen urritasunak emakumeen bizi baldintzen gogortzea areagotu zuten, baliabide eta aukera urriagoak zituztelarik. Adibidez, klasifikatzeko zailtasunak eragiten zituen, hau da, adin eta zigor ezberdinak betetzen ari ziren emakumeak nahasten baitziren. XX. mende amaieran eta XXI. mende hasieran, emakume presoek arazo hau konpontzeko asmoz, gizonezko kartzelatan emakumezkoentzako moduluak egokitzen hasi ziren (Ballesteros, 2010; 41- 42. orr. in Almeda, 2002).

Azken finean, kartzela presoak txikitzeko eta gizonentzat pentsatua, sortua eta eraikia den instituzioa da. Gaur egun, ezarria dagoen sistema kapitalistak ez du aurreikusten emakumezkoek “ezer txarrik” egingo dutenik. Beraz, emakumeen kasuan kartzelak funtzio bikoitza eta gehigarria du. Kartzela sistemak, emakumeak diren presoak, hezi eta zigortu egin nahi ditu, sistema kapitalistak emakumeei ezarritako rola hautsi edo apurtu egiten dituztelako. Gainera, emakumezkoak diren presoentzat egokitzen den edota beraiengan pentsatua dagoen kartzela sistema ez da existitzen. Hau da, ez dago emakumezkoentzako kartzelarik, kartzela barruetan emakumeentzat egokitutako edo moldatutako moduluak baizik (Eizagirre, 2020).

1.4. Espainiar estatuko kartzela

Gaur egun, Espainiar Estatu guztian zehar, Katalunian izan ezik¹, 77 kartzela sakabanaturik daude. Hauetatik 34 kartzela arruntak dira (zigorrak erregimen irekian betetzeko), 3 amen unitateak edo moduluak (hiru urte bete arte, presoek seme-alabekin bizi daitezke), ospitale psikiatrikoak diren 2 kartzela eta mendeko 14 unitate (erregimen irekia betetzeko zentroak). Garrantzitsua da aintzakotzat hartzea, gaur egun, Espainian preso dauden ia pertsona heldu gehienak biltzen dituzte kartzelak arruntak izaten dira (Gonzalez Sánchez, 2012; 357-358.orr).

1.4.1. Generoan oinarrituriko kartzela motak

Espainiar Estatuan dauden kartzelen artean, bereizketa egiteko ezaugarri nagusia, kartzelan dauden presoek egoera judizialak baldintzatzen du, hots, kartzelak prebentiboak, kondena betetzeko edota espezialak izan daitezkeelarik. Ala ere,

¹ 80ko hamarkadaren erdialdetik, Kataluniak transferituta ditu kartzela betearazpenaren arloko eskumenak.

Espainiar Estatuan dauden kartzelen bereizketa preso en egoera judizialaren arabera egiteaz gain, generoan oinarrituriko bereizketa ere argia da.

Kasu honetan ere, hiru sailkatzeko era daude: emakumezkoak soilik preso dauden kartzelak, gizonezkoak bakarrik atxikiturik daudenak edota mistoak bezala izendatzen diren kartzelak daude. Hots, gizonezkoentzat egokiturik dauden kartzelak dira, honen baitan, emakumezkoentzat modulu ezberdinak moldatu edo ahalbideratzen dituztelarik. Izan ere, Espainiar Estatuan preso dauden pertsonen %7,5 emakumeak dira. Europa mendebaldean, emakumeen espetxeratze tasarik handiena duen herrialdeetako bat delarik. Ala eta guztiz ere, Espainiar Estatuko kartzela sistema ez da gai izan emakumei egokitutako sistema bat eraikitzen. Ondorioz, estatuan preso dagoen emakumeen kantitate baxuak eragin zuzena du emakumeen bizi baldintzetan. Honen adibide dira, Espainiar Estatuan soilik emakumezkoak atxikitzen dituzten hiru presondegi daudela eta gainontzeko emakumeak “mistoak” diren kartzeletan aurkitzen dira (Asociación Pro Derechos Humanos de Andalucía, 2020; 6-16. orr).

1.4.2. Emakumeen bizi baldintzak kartzelan

Arestian aipatu bezala, Espainiar Estatuan gizonezkoengan pentsatutako kartzela sistemak preso dauden emakumeen bizi baldintzetan eragin zuzena izaten du.

Diskriminazio honen arlo nagusietako bat alojamenduarena da. Arestian aipatu bezala, soilik hiru presondegi daude emakumezkoak atxikitzen dituenak eta gainontzeko emakume guztiak, kartzela “mistoak” diren kartzeletan daude preso. Honen ondorioz, emakume askok ezarri zaizkien zigorrak familiengandik oso urrun dauden presondegietan bete behar izaten dute. Beraz, are gehiago zailtzen du herriarekiko eta ingurune hurbilarekiko atxikimendua, baita familia harremanak ere. Gainera, kartzelen isolamendu geografikoa oztopo bihurtzen da bizitza komunitarioan parte hartzeko. Sarritan, legezkoak diren edo legez dagozkien eskubideak (lanera ateratzea, ikastera joatea, tratamendu ezberdinak jasotzea...) eskuratzeko, kartzelen isolamendu geografikoa oztopo bihurtzen da (Asociación Pro Derechos Humanos de Andalucía, 2020; 27-28. orr).

Aurretik aipatutako baldintza eta testuinguru guztiak, eragin zuzena du preso dauden emakumeen segurtasunean. Izan ere, kartzela mistoak bezala izendatzen diren presondegietan, emakumeak gizonentzako espetxeei atxikitako unitate txikietan sartzen

dituzte. Gainera, gizonezkoek preferentzia edukitzen dute kartzelak dituen instalazioa erabiltzeko. Izan ere, instalazio horietarako sarbidea eta gelaxketatik kanpo igaro daitekeen denbora, emakumeen kasuan mugatuagoa izaten da gizonezkoekin ezin daitezkeelako gurutzatu. Ondorioz, preso dauden emakumeak arau zorrotzagoak eta zurrunagoak dituzte (Asociación Pro Derechos Humanos de Andalucía, 2020; 27. orr).

Kartzelan, preso dauden emakumeen kantitatea eta hauen segurtasuna aitzaki bezala harturik, antolamendu egoki baterako zailtasunek eta eragozpen ohikoak izaten dira. Adibidez, preso dauden emakume eta gizonezkoak dituzten espazioak konparatu ezker, emakumeek espazio murriztagoak eta prekarioagoak dituzte erabilgarri. Edota kartzelan dauden antolatzeko zailtasunak aisiari eragiteaz gain, emakume presoek sailkapenean eragin zuzena du. Hau da, kartzelak emakumezkoentzat egokiturik dituzten baliabide urritasunen eraginez, sailkapen irizpideak legeak zehazten duen bezala ezartzeko zailtasunak daude (Asociación Pro Derechos Humanos de Andalucía, 2020; 7-8. orr).

Hau guztiaz gain, eskura dauden datu ofizialen arabera, emakumeak gizonezkoak baino aktiboagoak² izaten dira lana eta formakuntza arloan. Ala eta guztiz ere, emakumeek tailerrak edo kurtsoak jasotzeko, eta lan ezberdinak aukeratzeko garaian, aukera eta baliabide gutxiago edukitzen dituzte, arestian aipatu bezala, kartzela sistema gizonengan pentsatuta dagoelako. Gainera, kartzelan, emakumei eskaintzen zaizkien formakuntza edo tailerrak eta lan postuak, sistemak inposatutako genero rolaekin erlazio zuzena izaten ohi dute. Emakume presoak, batez ere sukaldean eta garbiketa lanetan aritzen dira edota josteko tailerrak jasotzen dituzte. Beraz, kartzela sistemak ere emakumei esleitua izan zaizkien rolak erreproduzitzen ditu. Egoera honen beste adibide garbietako bat, soldata arrakala da. Hots, kartzelan lan egiten duten gizonezko presoek %30ak hilean 300€ baino handiagoko soldata jasotzen duten bitartean, kartzelan lan egiten duten emakume presoek %83ak 300€ baino gutxiagoko soldata jasotzen dute lan berdina burutzeagatik (Asociación Pro Derechos Humanos de Andalucía, 2020; 28-29. orr).

Azken urteetan, gizarte hezitzaileak, lan eta formakuntzaren arloan pisu handiagoa hartzen ari dira. Hau da, presoek formakuntzan era aktiboan parte hartzen dute; orientazio lanak burutzen, tutore lanak egiten, titulazio eta kurrikulumak osatu eta gauzatzen etab. Gizarte hezitzaileak dituen funtzio hauen parte hartzea, era sakon eta

² 2016. urtean gizonen %27ak burutu zituen kurtso eta formakuntzak, eta emakumeen kasuan berriz %39ak. Lanari dagokionez, emakumeen %28ak jarduten du, gizonen kasuan aldiz %23ak.

intentsiboago batean gauzatzen dira preso hiru garren graduan klasifikatuta dagoenean, hots, preso erregimen irekian aurkitzen denean. Izan ere, presoak lan egiteko edo formatzeko aukera handiagoa eta zabalagoa bihurtzen da, gizarte hezitzailearen funtzioak ere areagotzen eta intentsifikatzen direlarik (Botesierra, 2011; 150. orr).

Amaitzeko, aipatu beharra dago, preso dauden emakumeek beraien oinarrizko behar higienikoak asetzeko gizonaek baino zailtasun gehiago dituztela. Izan ere, emakumezkoek, biologikoak eta aldi berean, gizarteak inposatutako behar higieniko gehiago dituzte. Une oro, beraien behar higienikoak asetzeko materiala (tanpoiak, konpresak...) eskatu edo erosi egin behar izaten dute, hauek kalean baino garestiagoak izaten dira, kartzela barruan pribilegioko materiala bilakatzen delarik (Sahalaketa Nafarroa, 2021).

1.4.3. Modulu edo sailak

Kartzelan, emakumeen bizi baldintzetan oinarrizko hainbat arlotan sakondu ostean, emakume presoak bere kartzela aldian egon daiteken lau modulu edo sail ezberdinen inguruan arituko naiz. Izan ere, sail mota ezberdinek emakumeen bizi baldintzetan eragin zuzena dute. Aurretik aipatu bezala, kartzela sistema gizonengan pentsatuta eginda dagoenez, kartzelak zituzten sail edo moduluak ez dira emakumeen beharretara egokitzen. Soilik, emakumeei eta amatasunaren etapari bideraturik dauden sailak egokitu edo moldatu izan dituzte.

Pertsona bat, lehen aldiz preso gisa kartzelara sartzean edota kartzela aldaketa bat jasaten duen preso batek, "Ingresos" edo sarrera saila izeneko modulura eramaten dute. Bertan, identifikaziorako fitxa teknikoak (argazkia, hatz aztarnak, kartzelara sartzearen arrazoiak...) egiten da, arakatze edo miaketa sakonak burutzen zaizkio pertsonari eta aldi berean, kartzela barruan izango dituen eskubideak, arauak eta bete beharrak helarazten zaizkio. Hau guztiaz gain, kartzelan sartzen den edo kartzelaz aldatu dioten presoari egokitu zaion ziega eramaten zaio, eta datozen egunetan, presoak medikuaren eta kartzelako ekipo teknikoaren (psikologoak, gizarte hezitzaileak, gizarte langileak...) bisitak jasoko du (Instituciones Penitenciarias, d.g.;).

Arestian aipatu bezala, gizarte hezitzailea kartzelan dagoen ekipo teknikoaren kidea da, eta aldi berean, tratamendu batzordeko kidea ere bada. Hezitzaileak, gainontzeko ekipo teknikoarekin batera, presoari egiten dieten errekonozimendu eta azterketa prozesu

ezberdinek, presoak kartzelan edukiko duen bizi baldintzetan eragin zuzena izango du. Izan ere, kartzelako zuzendaritzarekin batera, beraiek baitira presoak gardu batean edo bestean klasifikatzen dutenak, edota gradu progresioak ematen dizkietenak, formakuntza edo lan ezberdinak eskaintzen dizkietenak, baimenak ematen dizkietenak etab. Horretaz gain, gizarte hezitzaileak, presoan alor ezberdinetako jarraipenak burutzen ditu (Botesierra, 2011; 147-148. orr).

Kartzela guztietan dagoen beste sailletako bat, isolamendu moduluak izaten dira, bizi baldintza gogorrenak dituen sailari deritzaio. Sail hau, lehengo graduan klasifikaturik edota kartzela barruko diziplinaren baitan, arau hauste (santzio diziplinarioa) handira gauzatu badu, zigor modura erabiltzen den saila da (Instituciones Penitenciarias, d.g.; 160-162. orr).

Kartzelan dagoen beste modulu bat, erizaindegiarena da. Bertan, kartzelak dituen baliabideak aintzat hartuta, sail honetan artatuak edota mediku segimendu zurrun bat behar duten presoak egoten dira. Horretaz gain, modulu honek kontsulten eremua bere baitan integratua du, era berean, osasun arazo edo kontsulta bat eduki ezkeroko presoak modulu horietara bideratzen dituzte zitazioak betetzeko asmoz (Instituciones Penitenciarias, d.g.; 150-156. orr).

Espainiar Estatuko legegintzaren gaitasunak dagoen legea betetzeko asmoz, ama eta haurrei egokituriko sailak sortu zituzten. Horretaz gain, Valentzian eta Aranjuezen, guraso diren presoentzako modulu nahasiak eraiki zituzten, gurasoek seme alabekin bizitza gauzatzen dutelarik. Hauek, kartzelaren baitan eta fisikoki edo arkitektonikoki gainontzeko moduluetatik bereziak diren sail dira. Haurra espetxean bizi den aldiaren, amaren eta haurraren testuingurua ahalik eta "normalena" izan beharko luke, baina haurraren eta amaren garapena mugatua egoten da. Beraz, oso litekeena da, amak bere haurrarekin eta haurrak gainontzeko senideekin duen harremana kartzelak baldintzatzea. Izan ere, kartzelan gizartean bezala, amaren rolen bereizketa erreproduktzioa gauzatzen da (Asociación Pro Derechos Humanos de Andalucía, 2020; 25. orr).

1.4.4. Kartzela sailkapenak eta bizitza erregimenak

Espainiar Estatuko kartzela sistemak, presoak antolatze eta bereizteko, indibidualizazio zientifikoa oinarritzen den graduen sistema baliatzen dute. Honek, presoan banakako progresioa edo erregresioa ahalbideratzen du, presoak preso egon den

denboran izan duen bilakaeraren oinarritzen delarik. Honetarako, Espainiar Estatuko presondegien sistemak presoen antolakuntza gauzatzeko hiru gradu ezberdin eta hauekin erlazio zuzena duen hiru bizitza erregimen ezberdin ditu (Alonso Olea et al, 1996; 95-96.orr).

Bizitza erregimenak, presoen bizi baldintzetan eragin zuzena du, honen adibide garbientako bat da gizarte hezitzailearen funtzioa presoekiko. Hau da, presoak klasifikaturik dagoen bizitza erregimenaren arabera, gizarte hezitzaileak berarekiko eta bere kasuarekiko duen funtzioa eta jarrera ezberdinak izanen dira. Presoa lehenengo graduan klasifikaturik badago, erregimen itxian, ia ez du gizarte hezitzailearen aldetik heziketa sozio-hezitzailea jasotzeko aukerarik izaten. Bigarren graduan dauden presoak aldiz, heziketa sozio-hezitzailea maiztasun batekin jasotzen hasten dira. Eta presoak, hirugarren graduan klasifikaturik baldin badago berriz, erregimen irekia ezarria baldin badu, heziketa sozio-hezitzailea jasotzeko aukera zabalagoa edukiko ditu, gizarte hezitzailea presoaren erreferente nagusia bilakatu daitekeelarik (Botesierra, 2011; 143-148. orr).

Hau guztiaz gain, aintzat hartu beharra dago, preso dauden emakumeak gizonezkoak baino askoz gutxiago direla. Beraz, ez zaie errentagarria ateratzen emakumeei bideratutako kartzela erakundeak sortzea. Honek, emakumeak gradu ezberdinetan klasifikatzeko edo sailkatzeko eta gradu progresioak gauzatzeko zailtasunak eta oztopoak eragiten ditu. Hau da, preso dauden emakumeen eskubideak, klasifikatzeko eta gradu progresioak burutzerako garaian urratuak izaten dira (Diaz, 2014;14-15. orr).

Gradu ezberdinak argitzeko asmoz, hauek dira Espainiar estatuan presoak klasifikatzeko erabiltzen diren gradu ezberdinak:

- **Lehenengo gradua**, kontrol eta segurtasun neurriak murriztaileagoak diren erregimen bati dagokio, hots, **erregimen itxiari**. Lehen graduan sailkatutako presoak, muturreko arriskugarritasunagatik edo erregimen arrunt eta irekietara eta egoera berean dauden prebentzio araubideetara egokitzen ez direlako ezartzen zaie. Erregimen itxiaren baitan, bi modalitate ezberdin aurki daitezke. Batetik, erregimen itxiko zentroak edo moduluak daude, erregimen komunitaria egokitzen ez diren presoentzat. Bestetik berriz, sail bereziak daude, hau da,

asaldura oso larriak eragiten dituzten edo muturreko arriskua duten presoentzat (Alonso Olea et al, 1996; 102-105.orr).

- **Bigarren gradua** klasifikaturik dauden presoek bizitza aldiz, **erregimen arruntean** gauzatzen dute. Gradu hau batez ere, arriskutsuak bezala izendaturik ez diren eta erregimen arrunt eta irekietara egoki moldatzen diren presoek ezartzen zaie. Erregimen arruntean, lana eta prestakuntza oinarrizko jardueratzat hartzen dira, horretaz gain, presoak behartuta daude kartzelako eremu ezberdinetan ordena ona, garbitasuna eta higiena mantentzeko prestazio lanak³ (destinoak) egitera (Alonso Olea et al, 1996; 96-98.orr).
- Presoa **hirugarren graduan** klasifikatzen dutenean aldiz, **erregimen irekia** ezartzen zaio, beraien testuinguru pertsonal eta penitentiarioak erdi askatasunean bizitzeko gaitasuna duten presoek aplikatzen zaie. Gradu honetan klasifikaturik dauden presoak, kondena betetzeko hiru azpiegitura ezberdin daude egokiturik, zentro irekiak edo insertzio sozialeko zentroak, sekzio irekiak eta dependentzia unitateak. Horretaz gain, erregimen irekia aurrera eramateko modalitate ezberdinen uztarketarekin gauza daiteke: eskumutur telematikoak, epaitegietara sinatzera joatea etab (Alonso Olea et al, 1996; 98-102.orr).

1.4.5. Kartzela eta gizarte hezkuntza

Aurretik, hainbat alditan aipatu bezala, presoek bizi baldintzetan, eragin zuzena duen beste eremuetako bat da hezkuntza. Izan ere, pertsona orok du hezkuntza duin bat jasotzeko eskubidea. Honen harira, Espainiar Estatuko kartzeletan gizarte hezitzaileen figura, eta oro ar hezkuntzaren presentzia hutsalak eta okerrak dira. Kartzela sisteman ezarria dagoen “hezkuntza” bakarra terapiaren ikuspegitik bideratzen da, hau da, hezkuntza terapeutizatu, medikalizatu edota psikiatrizatze joera du, esku hartze hezitzailea alde batera uzten delarik. Kartzelak ez dira hezkuntzarako espaziotzat hartzen, giltzaperatze beraren aurrean eta honen gogortasunaren ondorioz, edozein jarduera hezitzaile bigarren mailan gelditzen baita. Beraz, funtsezkoa da, gaur egun kartzela sistemak hezkuntzari buruz duen jarduna aldatzea. Hau da, helburua egoera gatazkatsuetan heztea izan behar da, alderdi kognitibo eta sozialak lantzea, adimena emozionalak identifikatu eta garatzea, eta erantzukizun zibikoak eta jarrerak aldatzea. Honetarako guztirako, preso oren garapen integrala beharrezkoa da, beti ere subjektu

³ Kartzela barruan burutzen diren lanei (eremu komunen garbiketa) deritzo, onura penitentiarioak lortzeko asmoz.

bakoitzaren berezitasunak ondare komunarekin, hau da, jendartearekin uztartu behar direlarik (Gómez eta Pernas, 2013; 38-41. orr).

Baina, gaur egungo kartzela sisteman, hezkuntza, presoak kontrolatzeko baliabide bat gehiago da. Hots, kartzelan garatzen den hezkuntzaren baitan dauden baliabide eta profesional guztiak presoek kontrolaren areagotzea bultzatzen du. Honek eraginez, kartzelan dagoen tentsioaren areagotzea bultzatzen du, hezkuntza eta gizarte hezitzaileak kartzela sistemaren, eta honek inposatzen duen zuzentasun, diziplina, zorroztasun eta errepresioaren parte bilakatzen direlarik. Azken finean, hezkuntzak kartzelaren baitan duen konnotazio eta eragin negatiboak, presoak herritar aktiboak, parte-hartzaileak eta beren berreziketa eta gizarteratzea bultzatu beharrean, egoera askotan kontrakoa lortzen da, delituen berrerortzean (Gómez eta Pernas, 2013; 40-41. orr).

2. Metodologia

Azterketa gauzatzeko erabiliko dudana metodologia kualitatiboa izanen da, hau da, subjektuaren eta subjektua inguratzen duen testuinguruaren ezaugarri, datu, informazio, bizipen edota esperientzietan oinarrituko naiz. Beraz, emakumeak kartzelan dituen bizi baldintzen inguruko ikergaia burutuko dut. Hurrengo atal hauetan, lanaren exekuzioa nola gauzatu dudana azalduko dut.

2.1. Ikerketaren helburuak

Lehenik eta behin, ikerketak izango dituen helburu orokor zein espezifikokoak zehaztu ditut:

1. Kartzelan emakumeak dituzten bizi baldintzak aztertzea.
 - 1.1. Emakumeak atxikiturik egon daitezkeen bi kartzela motak (emakumeena den kartzela edota kartzela “mistoak”) aztertzea.
 - 1.2. Gradu ezberdinak zeintzuk diren ikertu, eta aldi berean, hauei dagokien ezaugarri, bizi modu eta baldintzak aztertzea.
 - 1.3. Kartzelan preso dauden emakumeei eskaintzen dizkieten formakuntzak eta honetarako baldintzak zein diren aztertzea.
 - 1.4. Kartzelan, emakume presoek, hezkuntza sozio-hezitzailea jasotzeko ze aukera, eskaintza edo baliabide dituzten ikertzea.

2. Amatasun prozesua kartzelan nola gauzatzen den aztertzea.
 - 2.1. Kartzelan, haurdunaldia eta erditze prozesuan nola gauzatzen den ikertzea.
 - 2.2. Preso diren amen eta beraiekin kartzelan bizi diren haurren bizi baldintzak zeintzuk diren ikertzea.
 - 2.3. 3 urterekin, haurra amarengandik banatzen dutenean, harremana lantzeko edo mantentzeko egon daitezken aukerak edo baliabideak, eta aldi berean prozesu hau lantzeko dauden programak zein diren aztertzea.

2.2. Ikerketaren hipotesiak

Arestian aipatutako helburu ezberdinak finkatu ostean, honekin erlazio zuzena duten hipotesiak finkatu nituen, hau da, ikergaiaren inguruko nire pertzepzio eta ideiak biltzen dituen jarraibideak dira.

1. Kartzelan, emakumeek gizonezkoek baino bizi baldintza okerragoak dituzte, alor edo eremu guztietan.
 - 1.1. Emakume presoek, kartzela “mistoetan” izaten dituzten bizi baldintzak gizonezkoek edota emakumezkoentzako kartzeletan atxikiturik dauden emakumeenak baino gogorragoak dira.
 - 1.2. Gradu eta erregimenei dagokionez, emakume zein gizonen bizi baldintzak teorikoki berdinak dira. Nahiz eta praktikan, emakumeek bizitza garatzeko zailtasun eta oztopo handiagoak dituzte.
 - 1.3. Emakumeak, kartzelan formakuntzak edo tailerrak jasotzeko dituzten baldintzak desagokiak direla deritzot.
 - 1.4. Emakumeek, kartzelan hezkuntza edo heziketa sozio hezitzailearik jasotzeko aukerarik ez dute.
2. Amatasun prozesua (haurra barruan edo kalean egonda) era normalizatu batean garatzeko zailtasun edo oztopo handiak dituzte.
 - 2.1. Kartzelan, haurdunaldi prozesua eta erditze garaia oso gogorrak dira, egoera hau, era egokian garatzeko baldintzak ez daudelako.
 - 2.2. Preso dauden amek eta beraiekin batera bizi diren haurrek, bizi baldintza gogorrak dituzte, oztopo eta aldi berean hutsune handiz betea.
 - 2.3. Behin, ama eta haurra bereizi ostean, beraien arteko harremana lantzeko eta garatzeko espazio edo errekurtsioak desagokiak dira. Eta familia eremuan ematen den bereizketa hau lantzeko ez dago inongo programarik.

2.3. Ikerketaren subjektuak

Ikerketako subjektuari dagokionez, hauek dira elkarrizketatuak bete beharreko baldintzak: Lehenik eta behin, elkarrizketatuaren sexua/generoa femeninoa izan behar da. Aldi berean, Espainiar Estatuko kartzeletan preso dagoen edo preso egon den pertsona izatea funtsezkoa da. Eta azkenik, preso egon den etapa horretan, preso gisa amatasuna bizi izatea beharrezkoa da.

Guztira, hamaika elkarrizketa burutu ditut, denak modu indibidualean gauzatu ditudalarik. Hamaika elkarrizketa horietatik bat izan ezin, eskutitz bitartez izan dela, gainontzeko elkarrizketa guztiak era presentzialean gauzatu izan dira. Hauetatik zazpi, elkarrizketa emakumeak diren preso arrunt edo sozial ohiei gauzatu dizkiet, eta gainontzeko lau elkarrizketak berriz, emakumeak diren euskal preso politikoei, hauetatik batek, preso jarraitzen du.

Elkarrizketatuak izan diren pertsonen adin tarteari dagokionez, 36 urtetik 59 urte bitarteko emakumeak elkarrizketatu ditut. Hamaika pertsona hauetatik, kartzelan, preso denbora gutxien egon den pertsonak 7 urte egin ditu eta gehienak aldiz, 22 urte. Hau guztiaz gain, denek kartzela barrutik bizi izan dute. Amaitzeko, kontutan hartu beharra dago, soilik elkarrizketatutako hamaika emakumeetatik lau preso egon direla soilik emakumeak atxikiturik dauden kartzeletan.

2.4. Datuak biltzeko tresna eta prozedurak deskribatzea

Datuak biltzeko, eskuragarri dauden datuak eta informazioa eskuratzeko baliabide bibliografikoen ustiapena egiteaz gain, elkarrizketa sakonetan oinarritu dut nire ikerketa. Hau guztiaren bitartez, subjektuaren eta ikertu dudana testuinguruaren datuak, informazioak, iritziak, pertzepzioak, esperientziak eta bizipenak jaso ditut.

Ikerketari ekiteko, arestian aipatu bezala, elkarrizketa sakonak burutu ditut, hauek bi era ezberdinetan erabili ditudalarik. Batetik, elkarrizketa teknika bezala ustiatu dut, hau da, elkarrizketatua izaten ari den pertsonaren datuak, bizipenak eta testuinguruaren inguruko informazioa biltzeko erabili izan dut. Eta bestetik aldiz, elkarrizketa, prozesu bezala erabili dut, ahalik eta erantzun zuzen eta zentzudunenak jasotzeko asmoz. Honetarako, elkarrizketa egituratua, formala edo estandarizatua erabili dut, hots, aurrez

prestatutako eta hertsiki itxitako galdetegi bat da, aurretik ezarritako galdera zerrenda baten bidez burutu izan dena (Ander-Egg, 2011; 122-123. orr).

Egia da, galdetegiak galdera itxi zein irekiak dituela, nahiz eta erantzunetan nahi bezain beste luzatzeko edo azaltzeko aukera ematen duen. Galdetegiak hiru atal nagusi ditu: Lehengo atalak, pertsona preso egon den bitartean, jasan dituen nondik norakoen ezaugarriak ezagutzen laguntzen digu. Hurrengo atalak berriz, emakumeak kartzelan dituen bizi baldintzak ikertzeko galderak gauzatzen ditu, lau azpi atal (helburu espezifikoetan) nagusitan banatzen delarik. Eta azkenik, hirugarren atal nagusi bat dago, amatasuna kartzelan deritzona. Hau ere, hiru azpi ataletan banatzen (helburu espezifikoak) baita.

2.5. Prozedura

Arestian aipatu bezala, bibliografiaren ustiapena, ikerketa prozesuaren hasieran era intentsiboago batean garatutako ekintza izan. Honen bitartez, dokumentu fisikoak (liburuak, aldizkariak, errekurso historikoak, informeak, ikerketa ezberdinak...) eta era birtualean (internet) jasotako informazio guztia antolatzea, ordenatzea eta sistematizatzea funtsezkoa izan da, ikertu behar nuen eremuaz gehiago jakin, ikerketa modu egokian kokatu eta marko teorikoa osatzeko asmoz (Ander-Egg, 2011; 129-131. orr).

Elkarrizketak gauzatzeko, Nafarroako zein Arabako Salhaketa elkartearekin jarri nintzen harremanetan, gauzatu nahi nuen ikerketaren berri emateko eta elkarrizketatuak izan zitezkeen pertsonekin harremanetan jarri edo zubi lanak egiteko asmoz. Aldi berean, lagunak diren eta elkarrizketatua izateko profila betetzen zuen emakumeekin ere jarri nintzen harremanetan. Honen bitartez, elkarrizketatuen lagina osatzea lortu nuen. Ikerketaren nondik norakoak zehatzago azaltzeko eta elkarrizketak gauzatzeko, elkarrizketatuak izango ziren pertsonekin zitak finkatu nituen.

3. Ikerketaren emaitzak

Hurrengo lerro hauetan, kartzelan emakumeak dituzten bizi baldintzak ikertzeko burutu ditudan 11 elkarrizketa kualitatiboetatik, hauek dira atera ditudan emaitzak. Ala ere, kontutan eduki behar da, azterketan jorratzen den arloaren arabera, jasotako emaitzen

kopurua aldatzen joanen dela. Izan ere, elkarrizketatu batzuek nahiago izan duten informazio zuzenik eta ziurrik ez zuten arloetako galderei ez erantzutea.


Lehenik eta behin, **emakumeak soilik atxikiturik dauden kartzeletan, emakumeek, dituzten bizi baldintzak** aztertu ditut. Kontutan eduki beharra dago, eremu honetarako emaitzak aztertzeko garaian, elkarrizketatutako 11 pertsonetatik 3k, nahiago izan dute alor honetako galderei ez erantzun, honen inguruko informazio kontrastaturik ez zutelako. Beraz, azterketa alor honetan, 8 pertsonekin burutua izan da. Honetarako, bizi baldintza duinak izateko funtsezkoak diren eremu ezberdinen inguruan galdetu diet eta hauek izan dira emaitzak:

1 taula: Emakumeen bizi baldintzak, soilik emakumeak preso dauden kartzeletan.

Ikertutako arloak	Emaitzak
Kartzela hauetan, emakumeek aisiarako dituzten espazio, baliabide eta aukerak, gizonezkoen berdinak ahal dira?	Berdinak: %37,5 Gehiago: %0 Gutxiago: %62,5
Emakumeen kartzeletan nolako aukera eta baliabideak dituzte?	Egokiak eta asko: %0 Desegokiak, gutxi eta txarrak: %100
Emakumeek, beraien behar higienikoak asetzeko baliabide nahiko izaten ahal dituzte?	Bai: %0 Ez: %100

Honen ondoren, **emakumeek, kartzela mistoak bezala izendatzen diren presondegietan, dituzten bizi baldintzak** aztertzea nuen xede. Hurrengo grafikoan ikusi daitekeen bezala, kartzela hauetan emakumeen bizitza gizonen bizitzagatik erabat baldintzatua dagoela adierazi zuten elkarrizketatutako 10 emakumeek.

Kartzela "mistoetan" emakumeen bizitza gizonen bizitzaren arabera antolatzen ahal da?



1 irudia: Emakumeen bizitza gizonen bizitzaren arabera antolatzen ahal da?

Baiezkoa erantzun zuten, 10 hauetatik, %90aren arabera, kartzela sistemak, sistema kapitalistaren ezaugarri patriarkalak erreproduzitzen ditu. %10ak aldiz, adierazi zidan, kuantitatiboki gizonezkoak gehiago direnez, kantitateari lehentasuna ematen zaiola emakumeen bizitza antolatzeko garaian. Ezezkoa erantzun zuen pertsonaren iritzia bestelakoa da, hau da, bere ustetan, kartzelan dauden pertsonen bizitza baldintzatzen duena ez da generoa, klase soziala baizik. Hots, klase sozial altuko kide den preso batek, kartzelako antolaketa eta bizi baldintza gainontzeko gizon eta emakumeen ezberdina dela baieztatzen zuen. Honen ondorioz, ikertu nituen alor guztiak arestian aipatutako ezaugarriagatik baldintzaturik daudela argi ikusi daiteke. Hauek dira ikerketan aztertutako alor ezberdinak:

2 taula: Kartzela “mistoetan” emakumeek dituzten bizi baldintzen azterketa.

Ikertutako arloak	Emaitzak
Emakumeei bideratzen zaizkien moduluak, emakumeen beharretara egokitzen ahal dira?	Bai: 0 Ez: 11
Kartzela mota hauetan preso dauden emakumeak, kartzela berean atxikiturik dauden gizonak, aisiarako dituzten espazio eta baliabideak berdinak ahal dira?	Berdinak: 0 Gehiago: 0 Gutxiago: 11
Kartzela mota hauetan, preso dauden emakumeek eta emakumeak soilik atxikiturik dauden kartzeletan, aisiarako dituzten espazio eta baliabideak berdinak ahal dira?	Espazio berdinak: 0 Espazio ehiago: 0 Espazio gutxiago: 11
Emakumeek ze kartzeletan izaten dute formakuntzak jasotzeko aukera gehiago?	Kartzela “mistoetan”: 11 Emakumeak soilik dauden kartzeletan: 0
Emakumeek, zailtasunak izaten ahal dituzte kartzela mota honetan beraien behar higienikoak asetzeko?	Bai: 11 Ez: 0

Gainera, kartzelan **emakumeek jasotzen duten heziketa sozio hezitzailea aztertzea** ere funtsezkoa ikusten nuen. Marko teorikoan aipatu bezala, hezkuntza pertsonen bizi baldintzen hobekuntzarako eta garapenerako funtsezko baldintza baita (Gómez eta Pernas, 2013; 38orr). Burututako ikerketan, elkarrizketatu guztietatik 10ek, uste dute, emakumeek gizonezkoek baino zailtasun handiagoak dituztela kartzelan gauzatzen den heziketa minimoa jasotzeko. Izan ere, elkarrizketatuen %100ak adierazi du, kartzela sistemak ez duela berezko heziketa programarik. Izan ere, 5 pertsonen ustez, kartzelan ematen den heziketa minimo eta esporadikoa, soilik kanpoko erakunde edo elkarteek burutzen duten lana izaten dela diote. Eta gainontzeko 7 pertsonen iritziz, kartzela sistemak eta gizarteak hezkuntzarekiko duten kontzepzioa erabat desberdina dela adierazi zuten:

“Nire ustez, ematen dutena edo bilatzen dutena ez dela hezkuntza, soilik pertsonak sistemaren interesen alde jokatzeko besterik ez dute nahi. Azkenean pertsona sumiso, obediente eta zurrunk izatera behartzen dituzte, ni barne.” (10. elkarrizketatua)⁴

Jakina den bezala, **emakumeak preso dauden bitartean, modulu edo sail ezberdinetan atxikiturik** egon daitezke. Beraz, hurrengo taula hauetan, horietako bi moduluen ikerketaren emaitzak adieraziko ditut. Lehengo saila, arrera saila da. Preso guztiak, bai kartzelara lehen aldiz sartzen direnean, eta presondegiz aldatzen dituztenean ere, arrera moduluetan sailkatzen dituzte. Modulu honek, gainontzeko moduluak ez dituzten ezaugarri bereizgarri batzuk ditu; miaketak, profesional ezberdinen jariora eta hauen pisua, egokitzapen saila da... Beraz, taula honetan, ezaugarri bereizgarri hauen ikerketaren emaitzak ageri dira:

3.taula: Emakumeek, arrera moduluetan dituzten bizi baldintzen, ikerketaren emaitzak.

Ikertutako arloak	Emaitzak
Miaketak burutu dizkieten funtzionarioen generoa.	Emakumezkoak: 6 Gizonezkoak: 0 Bi generoetako funtzionarioak: 5
Burutzen duten lehen azterketa.	Egokia edo sakona: 1 Desegokia edo azalekoa: 10
Emakume presoekiko duten jarrera.	Egokia edo zuzena: 5 Desegokia: 5 Profesionalaren arabera aldatzeko: 1

⁴ Elkarrizketatuen iritzia hitzez-hitz.

Profesionalek, emakume presoekiko duten jarreran generoaren eragina du.	Bai, beti: 7 Batzuetan edo egoeraren arabera: 3 Ez, inoiz ez: 1
---	---

Aurreko taulan ikusi daitekeen bezala, elkarrizketatu gehienek arabera, presoak emakume izate hutsagatik kartzelan dauden profesional ezberdinek baztertu edo zokoratu egiten dituzte. Honen aurrean, elkarrizketatuek elkarrizketetan zehar gehien errepikatu eta sentitu dituzten sentazioak biltzea beharrezkoa ikusten nuen: miaketak kartzelak pertsonak deshumanizatzeko burutzen duen lehen pausoa izaten da, umilgarriak dira, egoera oso bortitza suertatzen da, larderia eta beldurra ohiko sentazioak izaten dira.

Bigarren moduluari berriz, isolamendu saila deritzo. Bertan, emakume presoek dituen bizi baldintzen inguruan galdegiten nien. %100ak erantzun zidan, sail honetako bizi baldintzak, kartzelako bizi baldintzarik gogorrenak dituen espazio edo eremua dela, eta sail hau ez dagoela inorentzat pentsatua. Honen adibide garbiak dira, batetik ikertutako arloen desgloseen emaitza eta bestetik, bi elkarrizketatuen adierazpenak:

“Estos módulos son muy duros, la cárcel no está para educar esta para castigar, este módulo es un claro ejemplo de la falta de educación. Por lo tanto, yo creo que no está hecho ni para mujeres ni para hombres.” (1 elkarrizketatua)

“Yo creo, que los módulos de aislamiento son máquinas de destruir personas, porque en este módulo la opresión, la exclusión y el castigo se da de una escala mayor, de forma más violenta y expuesta.” (7. elkarrizketatua)

5.taula: Emakumeek, isolamendu moduluetan dituzten bizi baldintzen ikerketaren emaitzak.

Ikertutako arloak	Emaitzak
Emakumeentzako sail ezberdinak ahal daude?	Bai, genero bakoitzak bere saila independentea du: 0 Ez, bi generoetako presoak sail berean daude: 11
Objektu edo material pertsonen kantitatea.	Modulu arruntetan baino gehiago: 0 Modulu arruntetan baino gutxiago: 11
Higiene pertsonaleko beharrak asetzeko zailtasunak.	Modulu arruntetan baino gehiago: 11 Modulu arruntetan baino gutxiago: 0
Hezkuntza programaren bat ahal dago?	Bai: 0 Ez: 11

Preso guztien bizitzan, baita emakume presoen bizi baldintzetan, eragin zuzena izaten dute **graduak eta hauei dagozkien bizitza erregimenak** ere. Horrenbestez, bizi baldintzak aztertzerako garaian, funtsezkoa ikusten nuen gradu ezberdinen eta hauei zegozkien bizitza erregimenen ikerketa bat burutzea. Galderak burutu nizkien emakume guztiek erantzun zuten, legalki eta teorikoki, gradu ezberdinetako baldintzak gizon zein emakumezkoentzako berdinak direla, nahiz eta praktikan hau ez bete. Erantzun hau justifikatzeko, elkarrizketatu gehienak galdetegian aurretik jorratutako gai edo arlo ezberdinei egiten zieten erreferentzia: emakumeek aisiarako dituzten espazio, baliabide edota errekursoei; formakuntza mota, kantitate eta kalitateari; soldatapeko lana burutzeko dituzten aukera eta honengatik jasotzen duten aukerei etab.

Hau guztiaz gain, alor honetan gradu progresioen inguruko ikerketa gauzatzea garrantzitsua iruditzen zitzaidan. Izan ere, presoen bizi baldintzak, erabat baldintzaturik daude klasifikaturik dauden graduaren arabera. Honetarako, gradu progresioak emateko edo lortzeko, emakumeek gizonezkoek baino zailtasun gehiago dituzten galdegiten nien. Emakumeen % 100ak zailtasun gehiago izaten zituztela adierazi zidaten:

“Nik uste dot, gehiago eukitzen dabiela. Azken finean, eztau gradu aldaketak edo gradu ezberdinak egoki antolatzeko espaziorik emakumiantzat. Emakumien kasuetan, askotan inprobisaziora jotzen dute, honek emakumiei dagokien eskubideen urraketan eragiten du. Ondorioz, gradu progresioa atzeratzea ematen da, baliabide eta sistemak emakumeengan pentsatuta ez daudelako.” (4. elkarrizketatua)

Gai hau amintzat emateko asmoz, presoen gradu progresioan gizarte hezitzailearen iritziak edo balorazioak eragina duen aztertu nuen. Kasu honetan ere, elkarrizketatu guztiek, baiezko erantzuna eman zuten. Adierazi zuten, nahiz eta erabakiaren azken hitza kartzelako zuzendariak eduki, gizarte hezitzaileak zuzendariaren erabaki horretan eragina duela. Izan ere, gizarte hezitzailea profesional ezberdinek osatzen duten ekipo teknikoaren eta zuzendaritza taldearen kidea baita.

Honen ondoen aztertu dudana beste gai bat, **emakumeek kartzelan jasotzen dituzten formakuntzen baldintzei** deritzo. Aurreko atal ezberdinetan, azaleko eran aztertu dudanez, atal honetan sakonago ikertu dut. Gai honi dagokion emaitzak adierazi aurretik, aipatzekoa da, atal honi zegokion galderak 11 elkarrizketatuetatik soilik 7 pertsonak erantzun izan ahal dituztela. Beste lau emakumeek, formakuntzaren arloan inongo esperientzia eta informazio ziurrik ez zutelako.

Lehenik eta behin, formakuntzak jasotzeko presoek eduki behar zuten baldintzen inguruan galdegin nien. Hauek adierazi zidaten, kartzelan soilik bigarren graduan edota lehengo gradutik bigarrenera igarotzeko trantsizioan dauden presoek, edukitzen dutela aukera tailerrak jasotzeko. Behin hau jakinda, eremu honetan, emakumeek dituzten baldintzak ikertu nituen, hauek dira emaitzak:

6.taula: Emakumeek, formakuntzetan dituzten baldintzen azterketaren emaitzak.

Ikertutako arloa	Emaitzak
Emakumeei bideratzen zaizkien formakuntzak, emakumeei inposatzen zaizkien rolak erreproduzitzen dituela uste duzu?	Bai: 7 Ez: 0 Batzuetan: 0
Emakume eta gizonei eskaintzen zaizkien plaza kopuruak berdina ahal dira?	Bai, plaza presoaren kantitatearen arabera banatzen dira proportzionalki: 4 Ez, gizonezkoek proportzioan plaza gehiago izaten dituzte: 3
Kartzelak ematen dituen errekurso eta baliabideak egokiak ahal dira?	Egokiak: 0 Desegokiak: 2 Kurtsoaren arabera materialen egokitzapena aldatzen da: 5

Honetaz gain, eta gai hau amaitutzat emateko asmoz, formakuntzetan gizarte hezitzaileak izaten duten presentzia eta burutzen duten funtzioen inguruan galdegin nien. Kasu batean izan ezik, gainontzeko 6 elkarrizketatuek adierazi zidaten, gizarte hezitzailea ez dutela inoiz formakuntzen eremuan ikusi. Askok, azpimarratu izan didate zuten hezitzaile bakarra formakuntza burutzen zuen irakaslea izaten zela, eta kasu askotan berak burutzen zituela lan esparruari zegokion orientazio lanak. 7. esperientzia aldiz, oso bestelakoa da:

“Ni formakuntzetan ibili nintzenean, oso gutxitan eta era ez jarrai batean agertzen zen. Suposatzen da, bere lana, enplegu eta ikasketa eremuan orientatzea izan beharko litzatekeela, baina orientatu beharrean presoaren inguruko informazioa bildu eta aldi berean kontrol zurrun bat eramaten saiatzen zen.” (3. elkarrizketatua)

Emakumeek kartzelatan dituzten bizi baldintzen ikerketa amaitutzat emateko asmoz, **kartzelan amatasuna** nola gauzatu, garatu eta amaitzen den ikertzea beharrezkoa ikusten nuen. Honetarako, lehenik eta behin, **haurdunaldi eta erditze prozesu** duin bat izateko funtsezkoak diren hainbat gai ezberdinen inguruko azterketa egin dut. Aintzat

hartzekoa da, 11 elkarrizketatik 8k erantzun ahal izan dituztela galderak, eta lek kartzela barruko amatasun moduluari erreferentzia egin beharrean, amentzako kanpo unitateei buruzko informazio, iritzi eta esperientzia helarazi zidan. Ondorengo taula honetan, ageri dira haurdunaldi eta erditze prozesuari erreferentzia egiten dioten ikerketen emaitzak:

7.taula: Emakumeen bizi baldintzak, haurdunaldi eta erditze prozesuan:

Ikertutako arloak	Emaitzak
Amatasun moduluak kartzela askotan ahal daude?	Ez, oso gutxitan: % 100 Bai, askotan edo gehienetan: % 0
Kartzela barruko kokapena egokia ahal da?	Egokia: % 0 Desegokia: % 100
Nola gauzatu izan da zuen kartzela edo modulu aldaketa, era normal edo egokitu batean?	Era egokituan: % 50 Era arruntean: % 50
Aldaketa hauek, haurdunaldian zehar edo erditu ondoren burutzen ahal dira?	Haurdunaldian zehar: % 100 Ondoren: % 0
Osasun arreta, kanpoko edo barruko medikuek burutzen dute?	Barrukoek: % 0 Kanpokoek: % 100
Zein izan da mediku hauetatik jaso izandako tratua?	Egokia: % 87,5 Desegokia: % 12,5
Amatasuna lantzeko, kartzelak programaren bat ahal du?	Bai: % 0 Ez: % 100

Honen harira, modulu arrunt batek eta amatasun modulu batek dituzten ezberdintasun nagusienak aztertzea funtsezkoa iruditzen zitzaidan. Jasotako erantzun guztiak, oso antzekoak dira, hurrengo horietako bat da:

“Bereizgarri asko ditu: ziegak handiagoak dira, pasillo zein patioan koloreak daude, jostailu ezberdinak daude... azken finean modulu arrunt batean ez dauden estimulazioak daude. Baina, ala ere, ez dira haurren eta amaren beharrei egokitzen. Estimulazio falta ikaragarria dute eremu horretan haurrek, eta lau paretak ez dira egokiak haur bat hazi eta hezteko, ezta ama batek bere beharrak asetzeko ere.” (6. elkarrizketatua)

Arestian aipatu bezala, 9. elkarrizketatuaren erantzuna bestelakoa izan da. Izan ere, emakume honek, haurdunaldi, erditze eta amatasunaren lehen urteak, amatasun kanpo moduluetan bizi izan ditu. Hau da modulu hauen inguruan elkarrizketatuak adierazitakoa:

“Cuando mi hija nació, a mí me trasladaron a una unidad de madres exteriores. Es decir, son pisos penitenciarios que están situados dentro de las ciudades, y que llevan un control pero hay muchísima más libertad. Hay que cumplir unas horas, unos compromisos, unos trabajos... pero a cambio de eso tienes más libertad. No me parece adecuado que los niños estén rodeados de tanta cámaras, vallas, muros... pero es verdad que estos pisos son mucho más adecuados que los módulos de madres en la cárcel.” (9. elkarrizketatua)

Emakumeen bizi baldintzen arloan aztertu dudan hurrengo etapa, **haurra jaio eta amarengandik bereizten** duten bitarteko uneari deritzo. Etapa honetan ere, soilik 8 elkarrizketatuk era zuzen eta ziur batean erantzuteko aukera izan dute. Berritri ere, azpiko taulan daude ikus gai ikerketaren emaitzak:

8.taula: Emakumeen bizi baldintzak, haurra jaio eta haurra amarengandik bereizten duten arte.

Ikertutako arloak	Emaitzak
Emakumea ama izaten denean, aurretik ezarria zuen graduak eragina ahal du emakumearen eta haurraren egunerokotasunean?	Bai: % 100 Ez: % 0
Amaren, eta aldi berean haurraren behar higienikoak asetzeko zailtasunak egoten ahal dira?	Bai: % 100 Ez: % 0
Medikuekin burutzen den arreta, kanpoko edo barruko medikuek burutzen ahal dute?	Kanpokoek: % 100 Barrukoek: % 0
Ama eta haurraren espazioa eta denbora errespetatzeko, baliabide, espazio edo errekurtsioak daude?	Bai, egokiak: % 0 Bai, desegokiak: % 37,5 Ez daude: % 62,5
Kartzelan ematen diren elikagaiak edo menuak nolakoak dira amatasun prozesurako?	Egokiak: % 0 Desegokiak: % 100

Ikerketa honen bitartez aztertu dudan azken gaia, haurrak 3 urte betetzen dituztenean eta amarengandik bereizten dituztenean, emakume presoek, **amatasuna haurra kanpoan egonda** lantzeko dituzten baldintzak aztertu ditut. Emaitzak azalera aurretik, haurreko galderetan gertatu ez bezala, alor honetan elkarrizketatu guztiek eduki dute galdera hauei erantzuteko aukera. Hauek izan dira, gai honen azterketaren emaitzak:

9.taula: Emakumeen bizitza baldintzak, haurra kanpora ateratzen denetik.

Ikertutako arloak	Emaitzak
Kartzela sistemak haurrak beraiekin mantentzeko beste errekurtsio edo baliabideren batera bideratu ahal zizueten?	Bai: %18,18 Ez: %81,82
Joan zineten errekurtsora joanda, aldaketa bortitza izan ahal zen?	Bai: %100 Ez: %0
Zuen bizi baldintzak hobera edo okerrera egin ahal zuten?	Okerrera: %18,18 Hobera: %81,82
Aldaketa hauetara egokitzeko asmoz, kartzelak programa hezitzailearen bat ahal du?	Bai: %0 Ez: %100

4. Ondorioak

Egindako ikerketak emandako emaitzak aztertu eta azaldu ostean, lan honetan finkaturik dauden helburu eta hipotesiei⁵ erreparaturaz, azken ondorioak azalertzeko momentua da. Ikerketa honen bitartez, argi geratu da Espainiar Estatuko kartzeletan, emakumeek dituzten bizi baldintzak erabat desegokiak direla. Ala ere, azterketa honetatik hainbat alderdi nabarmendu dira.

Ikerketa honekin, finkatutako 1. hipotesian berresten naiz. Hau da, kartzelan, emakumeek gizonetako baino bizi baldintza okerragoak eta ankerragoak dituzte, eremu guztietan. Emaitzetan ikusi izan den bezala, emakumeak aisian, alojamenduan, higiean etab. arazo eta oztopo handiagoak pairatu behar izaten dituzte. Ala ere, azpimarratzekoa da, 1.1. hipotesian aipatu bezala, emakumeak preso dauden kartzela motaren arabera bizi baldintza ezberdinak izaten dituztela. Hots, emakumeak bakarrik preso dauden kartzelak, edo kartzela mistoak bezala izendatzen diren kartzelak konparatu ezkerre, emakumeek bizitzako hainbat arlotan baldintza egokiagoak edo “duinagoak” izateko aukera dute. Adibidez, emakumeak soilik preso dauden kartzeletan, aisiarako espazio, errekurtsio edo baliabide gehiago izaten dituzte. Baina, kartzela “mistoetan” preso dauden emakumeak, kartzela barrura sartzen diren entitate ezberdinekin, hartu eman bat jorrazteko aukera gehiago izaten dute. Ondorioz, argi ikusten da, emakumeen bizi baldintzak kartzela motaren arabera asko aldatzen direla. Aldaketa hauen funtsa, gizonetan oinarritzen dela esango nuke. Hots, kartzela sistema gizonengan pentsatutako sistema den heinean, automatikoki emakumeak baztertu eta

⁵ 2.2. *Ikerketaren hipotesiak* atalean ikus gai.

zokoratzen ditu, kartzela motaren arabera, emakumeen bizi baldintzetan aldaketak gauzatzen direlarik.

Honen eraginez, azterketak egiaztatu duen beste puntu bat, 1.2. hipotesia izan da. Emakume zein gizonek, gradu eta bizitza erregimenei dagozkien bizi baldintzak, teorikoki berdinak dira, nahiz eta praktikan, emakumeek dituzten baldintzak bestelakoak izan. Hau da, klasifikaturik edo antolaturik dauden graduan, beraien bizitza teorikoki garatu beharko litzatekeen bezala gauzatzeko, zailtasun eta oztopo asko dituzte. Berdina geratzen da, gradu eta erregimen progresioak eskuratzeko garaian. Beraz, kartzela sistemak ez ditu emakumeak aintzakotzat hartzen, hauek zokoratuz eta alboratuz, honek arazo bat eragiten duelarik. Arazo hau estaltzeko asmoz, egin dituzten moldaketa edo egokitzapenak, desagokiak eta nahikoak ez direla argi erakusten du aurreko lerroetan adierazitako emaitzak. Ondorioz, arazoak estali beharrean, sistema bera aldatu beharko luketela uste dut.

Eskubide urraketa honek, emakumeen bizi baldintzetako hainbat arlotan eragin zuzena du. Honen adibide da, formakuntza edo tailerra eta lan eremua. Azterketa honek, 1.3. hipotesia, berronetsi du, hots, emakumeek graduz aldatzeko zailtasunak badituzte, tailerrak burutzea edo lana egiteko oztopoak izango dituzte. Gainera, oztopo horiek gaindituta ere, burutzen dituzten tailer guztiak, sistemak emakumeei inposatzen dizkien genero rolek, erabat erlazionatuak daudela argi geratu da. Kartzela, egun bizi garen sistema kapitalistak, dituen ezaugarri patriarkalak bultzatzeko existitzen den instituzio nagusienetako bat dela ondorioztatu dut; Lehenik eta behin, emakumeei formatzeko eta etorkizun batean independenteak izateko zailtasunak ezartzen dizkielako. Gainera, eskaintzen dituen formakuntza edo tailerrak emakumeei esleitutako genero rola bultzatzen ditu. Eta azkenik, kartzelaren baitan, lan eremuan emakumeek izugarritzko soldata arrakala pairatzen dute.

Preso dauden emakumeen bizi baldintzetan eragina duen, beste arloetako bat aldiz, hezkuntza da. Hezkuntzari dagokionez, ikerketak 1.4. hipotesia konfirmatu du. Hau da, kartzelatan dagoen hezkuntza bakarra, kartzelaz kanpoko erakundeetatik bultzatu eta ezartzen dena izaten dela. Kasu honetan ere, emakumeek heziketa saio hauek jasotzeko zailtasun handiagoak dituztelarik. Berrito ere, bizitza baldintzen eta norberaren garapen egokirako funtsezkoa den beste alor batean, emakumeak zokoraturik edo bazterturik geratzen dira. Nire aburuz, sistema kapitalistaren gizarte egituraketaren baitan, ez da

inoiz aintzakotzat hartu emakumeak ere, kapazak izango zirela sistemak inposatutako muga eta arauak horiek apurtzen. Horrenbestez, kartzela sistemak emakumeak automatikoki hezkuntzatik at utzi ditu. Gainera, ikerketa honen ondorioz, argi geratu da, kartzela sistemak, kartzelaren egituraketaren baitan, ez duela inongo heziketa sozio hezitzailearik gauzaten eta honetarako interesik adierazten. Kartzelako gizarte hezitzailearen eta honen funtzioak ikertu ostean, argi geratu zait, kartzelako gizarte hezitzaileak funtzionarioen lana erreproduzitzen duela, profesional kualifikatu baten izenpean. Presoekiko presioa, zorrotasuna, kontrola, zuzentasuna eta arauen betetzea inposatu eta bultzatzen duelarik. Beraz, kartzelan heziketa sozio hezitzaile bultzatzeko baldintzak eta beharrak agerikoak direla uste dut.

Emakume presoek bizi baldintzen eta eskubideen urraketaren beste adibide garbienetako bat, amatasuna da. Ikerketa honen ondorioz, hipotesien 2. puntua berresateaz gain, jabetu naiz, amak diren presoak, beraien amatasun prozesua era “normalizatu” batean garatzeko eta gauzatzeko izugarriko oztopo eta zailtasunak izaten dituztela. Honen adibide garbienak dira, haurdunaldi, erditze eta erditze ondorengo etapetan emakumeek, zein beraien haurren bizi baldintzei dagokien eremuetan izaten dituzten oztopo, zailtasun eta murrizketak. Hau, kartzela sistemaren beste porrot bat gehiago gisa kalifikatuko nuke. Izan ere, kartzela sistema emakumeei, eta kasu honetan, amak diren emakumeei eta hauen beharrei egokitu beharrean, sistemak zuen gabezia edo hutsuneari tapatzen saiatu direla uste dut, benetan preso hauen beharrak aintzakotzat hartu gabe. Ondorioz, emakume eta haur hauek bizi baldintza desagokiekin bizitzera bultzatzen dituztelarik.

Hau guztia aintzakotzat hartuz, azterketa honetatik hiru ondorio nagusi ateratzen ditut. Lehenik eta behin, adierazi nahiko nuke, atxikiturik dauden preso guztiak bizi baldintza desagokietan bizi direla. Nahiz eta, emakumeek, gainontzeko presoek baino, oztopo eta zailtasun handiagoak topatzen dituzte, norberaren garapen egoki bat burutzeko oinarrikoak diren arlo eta eremuetan. Gainera, ikerketa honek, kartzelaren inguruan nuen iritzian berresten lagundu dit. Izan ere, sistema kapitalistak erreproduzitzen dituen ideia, ideologia eta errepresio berbak bultzatzen ditu kartzelak. Kasu honetan, gizartean geratzen den bezala, emakumea zokoratuz, zapalduz eta gutxietsiz. Ateratzen dudana azken ondorio nagusia, hurrengoia izan da. Gaur egun, kartzela ulertzen dugun bezala ulertuta, eta kartzela sistemaren erabateko aldaketa ematen ez den bitartean, kartzelan, hezkuntza eta gizarte hezitzaileon presentzia beharrezkoa dela uste dut. Izan ere,

kartzelan gizartetik zokoratuta eta baztertuta dauden pertsonak daude atxikiturik, beraien beharrak astezko eta garapen egoki bat lortzeko zailtasunak dituztelarik. Hori bai, nire ustez, gure funtzioa beraiekin lan egitea izan beharko litzateke, eta ez kartzelarentzat.

5. Etika eta datu pertsonalen babesa

Burutu dudan ikerketan, elkarrizketatu ditudan emakume guztien datu pertsonalen babesa, aintzakotzat eduki dudan eremua izan da. Azterketa honetan, Gizarte Hezkuntzako Estatuko Elkarreak (2007) aipatzen dituen printzipioak eta artikulua errespetatu dira, hauek hezitzaileen kode deontologikoan agertzen direlarik:

- Elkarrizketa guztiak era anonimoan landu dira, ikerketa lagina konfidentzialtasunez tratatu da, informazioa soilik ikerketaren egilearen eta elkarrizketatuen artean konpartitu delarik.
- Elkarrizketatuak izan diren emakume guztien iritziz eta pertzepzioak aintzakotzat hartu dira, norberaren askatasuna eta autonomia errespetatuz.
- Ikerketa honetan, berdintasunezko tratua errespetatu da, elkarrizketatuak beraien arraza, sexu, adin, ideologia eta abarren ondorioz diskriminatu gabe.

Erreferentzia bibliografikoak

- Almeda Samaranch, Elisabet. (2002). *Corregir y castigar: el ayer y hoy de las cárceles de mujeres*. Barcelona: Ediciones Bellaterra.
- Alonso Olea et al. (1996). *Ley y reglamento penitenciarios*. Biblioteca de Legislación Serie Manor, segunda edición. (95-105. orr). Madrid, Espainia: Civitas.
- Ander-Egg, E. (2011). *Aprender a investigar. Nociones Básicas para la investigación social*. Córdoba, Argentina: Brujas.
- Aresti, P. (2018). *Rosa itzuli da*. (13. orr). Donostia, Espainia: Erein.
- Asociación Estatal de Educación Social. (2007). Documentos profesionalizadores. Berreskuratua [2021/05/12]: <http://www.eduso.net/archivo/docdow.php?id=143>
- Asociación Pro Derechos Humanos de Andalucía. (2020). *Informe sobre la situación de las mujeres presas*. Tratamiento y derechos de las mujeres privadas de libertad en los centros penitenciarios de España y Andalucía. Sevilla, España.
- Ballesteros, A. (2010). *Cárceles y mujeres. Centros penitenciarios en España: Desigualdad y reproducción de roles de género* (Trabajo Fin de Máster). Trabajo final para la obtención del máster en Igualdad y Género en el Ámbito Público y Privado. Universidad Jaume I de Castellón, Castellón, España.
- Barandiaran, S., Gurrutxaga, A. eta Mujika, A. (2007). *Ikaslearen Hiztegia*. Elhuyar hiztegiak. Elkar, Usurbil.
- Botesierra, M. (2011). *Educación penitenciaria. ¿A quién le importan los presos?* Universidad complutense de Madrid, Madrid, España. Berreskuratua [2021/03/22]: <https://mariabotesierra.files.wordpress.com/2011/01/penitenciaria.pdf>
- Cerezo, A. I. (2007). Origen y evolución histórica de la prisión. In *La prisión en España: una perspectiva criminológica* (pp. 1-22). Comares.

- De Vincezi, A., & Tedesco, F. (2009). La educación como proceso de mejoramiento de la calidad de vida de los individuos y de la comunidad. *Revista iberoamericana de educación*, 49(7), 5.
- Díaz López, A. (2014). *Condenadas a la desigualdad: La discriminación por razón de sexo en la mujer penada* (Trabajo Fin de Grado). Universidad de Jaén, Jaén, España.
- Eizagirre, E. (2020). Kartzela, zaintza eta emakumea*. *Argia*. Berreskuratua [2021/03/01]: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2707/kartzela-zaintza-eta-emakumea>
- Gómez, J. A. C., & Pernas, R. G. (2013). Educar en las cárceles: nuevos desafíos para la educación social en las instituciones penitenciarias Educating in Prisons: New Challenges for Social Education. *Revista de educación*, 360, 36-47.
- González Sánchez, I. (2012). La cárcel en España: mediciones y condiciones del encarcelamiento en el siglo XXI. *Berreskuratua* [2021/02/15]: <http://e-spacio.uned.es/fez/eserv.php?pid=bibliuned:revistaDerechoPenalyCriminologia-2012-8-5100&dsID=Documento.pdf>
- Instituciones penitenciarias. (d.g.). Establecimientos Penitenciarios. Gobierno de España, Ministerio de Interior. *Berreskuratua* [2021/01/22]: <https://www.institucionpenitenciaria.es/es/web/home/establecimientos-penitenciarios/infraestructuras-y-equipamiento>
- Pinochet, F. R. (2013). Poder y saber. Legitimidad de la prisión en Foucault: Sociedades disciplinarias y de control. *Revista de Estudios Cotidianos*, 1(3), 278-299.
- Sahalaketa Nafarroa. (2021). *Emakumeak, kartzelaren itzala*. [Youtube]. *Berreskuratua* [2021/03/07]: <https://www.youtube.com/watch?v=9T6siuZI9zs>

Eranskinak

1 Eranskina: Datuen erabilera

Gizarte Hezkuntzako graduko ikaslea naiz, urte honetan, graduko azken urtean nagoen honetan, gradu amaierako lana (GRAL) egitea egokitzen zait, nire kasuan emakumearen bizi baldintzak kartzelan izenpean. Lan hau burutzeko, *emakumeak kartzelan dituen bizi baldintzak* ikertuko ditut. Honetarako, asko eskertuko nuke zuen bizi esperientziak oinarri gisa harturik hurrengo galdetegia erantzungo bazenute. Aldez aurretik, eskerrak eman nahi dizkizuten adierazitako prestutasunagatik. Azpimarratu nahiko nuke, elkarrizketa honetan bildutako informazio eta datuak ikerketa burutzeko erabiliko direla soilik, hauek konfidentzialtasun osoa bermatuz.

2. Eranskina: Galdera sorta

OINARRIZKO GALDERAK / PREGUNTAS BASICAS

Sexua / Sexo:

Adina / Edad:

Zeintzuk dira preso egoera eraman zizuten arrazoiak? / ¿Cuáles son las razones que te llevaron a la situación de preso?

Zenbat denbora igaro duzu preso? / ¿Cuánto tiempo has estado preso?

Ze kartzeletan egon zara preso? Kartzelen izenak aipatzeaz gain, kartzela bakoitzaren alboan jarri emakumeen kartzelak edo kartzela “mistoak” bezala izendatzen direnak ahal diren. / ¿En qué cárcel estuviste presa? Además de citar los nombres de las cárceles, si es posible poner al lado de cada cárcel las cárceles de mujeres o las denominadas cárceles "mixtas".

EMAKUMEEN BIZI BALDINTZAK KARTZELAN / CONDICIONES DE VIDA DE LAS MUJERES EN LA CÁRCEL

- EMAKUMEZKOENTZAKO KARTZELAK / CARCELES PARA LAS MUJERES

Emakumeen kartzeletan, funtzionario guztiak emakumezkoak izaten ohi dira? /
En las cárceles de mujeres, ¿todos los funcionarios suelen ser mujeres?

Emakumezkoen kartzela, gizonezkoen kartzela batekin konparatzen badugu, aisialdirako dauden espazioak, baliabideak eta aukerak berdinak ahal dira? Ezberdintasunak badaude azaldu. / Si comparamos la cárcel de mujeres con una cárcel de hombres, ¿los espacios, recursos y posibilidades de ocio son iguales? Si hay diferencias, explícalas.

Emakumezkoen kartzela, gizonezkoen kartzela batekin konparatu ezker, formakuntzarako eskaintzen diren aukerak, formakuntza motak, plazak eta baliabide berdinak dituzte preso dauden emakumezko eta gizonezkoek? Zergatik?
/ La cárcel de mujeres, si se compara con una cárcel de hombres, ¿ las mujeres presas tiene las mismas posibilidades de formación, tipo de formación, plazas y recursos que los hombres presos? ¿Por qué?

Higiene pertsonalarentzat erabiltzen den materiala edo baliabideak eskatzeko edo lortzeko garaian, emakumeak gizonezkoek baino zailtasun handiagoak dituztela uste duzu? Jasotzen edo ematen diren higiene pertsonalerako materialak, emakumeen beharrak asetzeko nahikoak direla uste duzu? Arrazoitu zure erantzuna. / ¿Considera que las mujeres tienen mayores dificultades que los hombres a la hora de solicitar u obtener material o recursos para la higiene personal? ¿Crees que los materiales de higiene personal, que se reciben o entregan son suficientes para satisfacer las necesidades de las mujeres? Razona tu respuesta.

- **KARTZELA “MISTOAK” / CARCELES MIXTAS**

Gizonezkoentzako kartzelan dauden modulu guztietatik zenbat bideratzen dituzte emakumeei? / ¿Cuántos de todos los módulos que hay en la cárcel para hombres derivan a las mujeres?

Modulu hauek emakumezkoen beharretara egokitu edo moldatuta daudela uste duzu? Zergatik? / ¿Crees que estos módulos están adaptados a las necesidades de las mujeres? ¿Por qué?

Modulu hauen kokapen fisiko zehatza edukitzekotan, normalean kartzelaren barruan zein izaten da modulu hauen ohiko kokapen fisikoa? / ¿Cuál es la ubicación física habitual de estos módulos?

Emakumeei egokitutako modeloetan funtzionarioak, gizonezkoak edo emakumezkoak dira? / ¿En los módulos adaptados a las mujeres los funcionarios son hombres o mujeres?

Bisitak eta Vis a Visak egiteko garaian emakumezkoak eta gizonezkoak batera ateratzen al dira kabina edo logeletara? Batera jaisten ez badira, kabinak eta gelak gizonezkoek erabiltzen dituzten berdinak ahal dira? / A la hora de realizar las visitas y Vis a Visas, ¿salen juntas mujeres y hombres a las cabinas o habitaciones? Si no bajan juntos, ¿las cabinas y las habitaciones pueden ser las mismas que usan los hombres?

Kartzela “mistoak” bezala izendatzen diren presondegietan, emakumezkoek eta gizonezkoek aisialdirako dituzten espazio eta baliabideak berdinak ahal dira? Arrazoitu zure erantzuna. / En las prisiones denominadas como cárceles "mixtas", ¿son iguales los espacios y recursos de ocio de mujeres y hombres? Razona tu respuesta.

Emakumeek, non edukitzen dituzte formakuntza gehiago eta egokiagoak jasotzeko aukera, kartzela “misto” batean edo emakumeentzako den kartzela batean? Zergatik uste duzu hori horrela dela? / ¿Dónde tienen las mujeres la posibilidad de recibir más cantidad y a su vez adecuadas formaciones, en una cárcel para mujeres o en una "mixta"? ¿Por qué crees que eso es así?

Zeintzuk dira emakumeei eskaintzen zaizkien formakuntza eta lanak? Hauek, sexualizaturik daudela uste duzu? Zergatik? / ¿Cuáles son la formación y los trabajos que se ofrecen a las mujeres? Estos, ¿crees que están sexualizados? ¿Por qué?

Kartzela “mistoetan”, higiene pertsonalarentzat erabiltzen den materiala edo baliabideak eskatzeko garaian preso dauden emakumeak gizonezkoak baino zailtasun edo oztopo gehiago jasaten dituztela uste duzu? Zergatik? / En las cárceles "mixtas", ¿crees que las mujeres presas a la hora de solicitar material o recursos

que se utilizan para la higiene personal sufren más dificultades u obstáculos que los hombres? ¿Por qué?

Emakumeen moduluetan, emakumeen bizitza (ordutegiak, aisialdia, formakuntzak...) gizonezkoen bizi planifikazioak baldintzatzen duela uste duzu, hots, emakumeen bizitza gizonezkoen bizitzak baldintzatzen duela uste duzu? Zergatik? / En los módulos de las mujeres, ¿crees que la vida de las mujeres (horarios, ocio, formación) está condicionada por la planificación de la vida de los hombres, es decir, que la vida de las mujeres está condicionada por la vida de los hombres? ¿Por qué?

- GIZARTE HEZKUNTZA KARTZELAN / EDUCACION SOCIAL EN LA PRISÓN

Emakumeak dauden kartzeletan eta kartzela “mistoetan” lanean jarduten duten gizarte hezitzaileen kantitatea bera izaten ahal da? Zergatik? / ¿Hay la misma cantidad de educadores sociales en las cárceles “mistas” y en las cárceles para mujeres? ¿Por qué crees que ocurre eso?

Emakumeen kartzeletan, emakumeek, kartzela “mistoetan” baino zailtasun handiagoak edukitzen dituzte heziketa sozio-hezitzailea jasotzeko? Zergatik? / ¿Las mujeres, en que cárcel tienen mayor dificultad para recibir educación socio-educativa, en las cárceles "mixtas" o en las cárceles que solo están presas las mujeres? ¿Por qué?

Kartzela “mistoetan” gizarte hezitzailearen eskutik heziketa sozio-heitzailea jasotzeko gizonezkoek baino aukera gutxiago edukitzen ahal dituzte? Arrazoitu zure erantzuna. / ¿En las cárceles "mixtas", las mujeres presas, pueden tener menos oportunidades que los hombres para recibir una educación socio-educativa por parte del educador social? Razona tu respuesta.

- GRADU ETA ERREGIMEN EZBERDINAK / DIFERENTES GRADOS Y REGÍMENES
 - ARRERA MODULOAK / MODULOS DE INGRESO

“Ingresos” izeneko modulura sartzerakoan miaketak edo araketak gauzatzen dira, presoa emakumezkoa denean miaketak emakumezkoa edo gizonezkoa den

funtzionarioak gauzaten ditu? Miaketa bitartean, gela barruan dauden gainontzeko funtzionarioak emakumezkoak, gizonezkoak edota emakume eta gizonezkoz osatuta taldeak izaten dira? Nola sentitu izan zara egoera hauetan? / En los módulos de ingresos cuando se realizan los registros o los cacheos, ¿quién cachea a las mujeres, los funcionarios, las funcionarias o trabajadores de ambos sexos? Durante el registro, ¿el resto de funcionarios que están dentro de la sala son solo mujeres, hombres o el grupo está formado por mujeres y hombres? ¿Cómo se ha sentido en estas situaciones?

Zenbat denbora pasatzen da normalean modulu hauetan? Zuk, gehienez zenbat egun pasa izan dituzu “ingresos” izeneko moduluetan? / ¿Cuánto tiempo pasa normalmente en estos módulos? Usted, ¿cuántos días ha pasado como máximo en los módulos de ingresos?

Modulu hauetan kartzelako profesional (medikua, asistente soziala, gizarte hezitzailea...) ezberdinek, preso artatzera beharturik daude. Gauzaten dituzten azterketak sakonak izaten ahal dira? Zergatik? / En estos módulos, diferentes profesionales de la cárcel (médico, asistente social, educador social) están obligados a atender al preso. ¿Suelen ser exhaustivos los estudios que llevan a cabo? ¿Por qué?

Nolakoa izaten da profesional hauek presoekiko edukitzen duten jarrera? Zergatik? / ¿Cómo es la actitud de estos profesionales hacia los presos? ¿Por qué?

Profesional hauek emakumeak diren presoekiko duten jarreran, generoak eragina duela uste duzu? Arrazoitu erantzuna. / En la actitud de estos profesionales hacia las presas que son mujeres, ¿cree que influye el género? Razona la respuesta.

Modulu honetan ematen dituzten higiene pertsonalerako baliabide ezberdinak, emakumeak dituen behar higienikoetara moldatzen direla uste duzu? Zergatik? / ¿Crees que los diferentes recursos de higiene personal que aportan en este módulo se adaptan a las necesidades higiénicas de la mujer? ¿Por qué?

○ ISOLAMENDU MODULOAK / MODULOS DE AISLAMIENTO

Zein dira preso bat isolamendu moduluetan sartzeko arrazoiak? / ¿Cuáles son las razones por las que un preso entra en los módulos de aislamiento?

Gizon eta emakumezkoentzako isolamendu moduluak egoten dira edo genero ezberdinetako presoak modulu berean sartzen ahal dituzte? / ¿Existen módulos de aislamiento para hombres y mujeres o pueden incluir presos de diferentes géneros en el mismo módulo?

Sail honetan preso guztientzat bizi baldintzak askoz gogorragoak izaten dira. Baina baldintza gogor hauek gizonezkoentzat eginda edo pentsatuta daudela uste duzu? Zergatik? / En este departamento las condiciones de vida para todos los presos son mucho más duras. ¿Pero cree que estas duras condiciones están hechas o pensadas para los hombres? ¿Por qué?

Modulu honetan ematen dituzten higiene pertsonalerako baliabide ezberdinak emakumeak dituen behar higienikoetara moldatzen ahal direla uste duzu? / ¿Crees que los diferentes recursos de higiene personal que aportan en este módulo pueden adaptarse a las necesidades higiénicas de la mujer?

Gizarte hezitzaileak sail honetan atxikiturik dauden presoekin esku-hartzeak gauzatzen ahal dituzte? Modulu honen baitan, gizarte hezitzaileen bidez edota beste langile edo baliabideen bitartez, presoek heziketa sozio-hezitzailea jasotzeko aukera ahal dute? / ¿Pueden los educadores sociales realizar intervenciones con las personas presas en el módulo de aislamiento? ¿Dentro de este módulo, a través de educadores sociales u otros trabajadores o recursos, ¿los presos pueden optar a la educación socio-educativa?

- GRADUA, ERREGIMEN ITXIA / 1º GRADO, REGIMEN CERRADO

Zein dira preso bat 1 graduan ezartzeko arrazoiak edo baldintzak? / ¿Cuáles son las causas o condiciones para establecer un preso en 1º grado?

1 graduan aurkitzen diren presoak egunean zenbat ordu pasatzen dituzte ziegan itxita eta zenbat patioan? Azaldu edo aipatu ziengan eta patioen ezaugarri nagusienak. / Las presas que están clasificadas en el 1º grado ¿Cuántas horas pasan encerrados en la celda y cuántas en el patio? Explica las principales características de los patios y de las celdas.

1 graduan dagoen preso batentzat zeintzuk dira aisialdirako dauden aukerak, baliabideak eta baldintzak? / ¿Cuáles son las posibilidades, recursos y condiciones de ocio para un preso en 1º grado?

Gradu honetan klasifikaturik dauden presoak formakuntzak jasotzeko aukera ahal daukate? Eta lana egiteko? / ¿Pueden los presos clasificados en este grado recibir formación? ¿Y para hacer el trabajo?

1 garduan klasifikaturik dauden presoekin, hartu emana edukitzen ahal du kartzelako gizarte hezitzaileak? Ala bada, zein izaten da hartu eman horretan gizarte-hezitzaileak edukitzen duen funtzioa? / El educador social de la cárcel, ¿puede recibir o recibe los presos clasificados en el 1º grado? ¿Cuál es la función que tiene el educador o educadora social en esta acción?

1 garduan klasifikaturik dagoen preso batek, ba ahal du heziketa sozio-hezitzailea jasotzeko aukerarik? Erantzuna baiezkoa bada, nola definituko zenuke heziketa hori? / ¿Puede un preso clasificado en 1º grado recibir una educación socio-educativa? Si la respuesta es afirmativa, ¿cómo definiría esa educación que se recibe?

- GRADUA, ERREGIMEN ARRUNTA / 2º GRADO, REGIMEN ORDINARIO

Zein dira preso bat 2. graduan ezartzeko arrazoiak edo baldintzak? / ¿Cuáles son las causas o condiciones para la implantación de un preso en 2º grado?

2 graduan aurkitzen diren presoak egunean zenbat ordu pasatzen dituzte ziegan itxita eta zenbat patioan? Azaldu edo aipatu ziegan eta patioen ezaugarri nagusienak. / Las presas que están clasificadas en el 2º grado, ¿cuántas horas pasan encerrados en la celda y cuántas en el patio? Explica las principales características de los patios y de las celdas.

2 graduan dagoen preso batentzat zeintzuk dira aisialdirako dauden aukerak, baliabideak eta baldintzak? / ¿Cuáles son las posibilidades, recursos y condiciones de ocio para un preso en 2º grado?

Gradu honetan klasifikaturik dauden presoak formakuntzak jasotzeko aukera ahal daukate? Eta lana egiteko? / ¿Pueden los presos clasificados en este grado recibir formación? ¿Y para hacer el trabajo?

2. garduan klasifikaturik dauden presoekin, hartu emana edukitzen ahal du kartzelako gizarte hezitzaileak? Ala bada, zein izaten da hartu eman horretan gizarte-hezitzaileak edukitzen duen funtzioa? / El educador social de la cárcel, ¿puede recibir o recibe los presos clasificados en el 2º grado? ¿Cuál es la función que tiene el educador o educadora social en esta acción?

2. garduan klasifikaturik dagoen preso batek, ba ahal du heziketa sozio-hezitzailea jasotzeko aukerarik? Erantzuna baiezkoa bada, nola definituko zenuke heziketa hori? / ¿Puede un preso clasificado en 2º grado recibir una educación socio-educativa? Si la respuesta es afirmativa, ¿cómo definiría esa educación que se recibe?

- GRADUA, ERREGIMEN IREKIA/ 3º GRADO, REGIMEN ABIERTO

Zein dira preso bat 3 graduan ezartzeko arrazoiak edo baldintzak? / ¿Cuáles son las causas o condiciones para la implantación de un preso en 3º grado?

Ze aukera edo baliabide eskaintzen dituzte 3. graduan kondena betetzeko? / ¿Qué opciones o recursos ofrecen para cumplir la condena en 3º grado?

3. garduan klasifikaturik dauden presoekin, hartu emana edukitzen ahal du kartzelako gizarte hezitzaileak? Ala bada, zein izaten da hartu eman horretan gizarte-hezitzaileak edukitzen duen funtzioa? / El educador social de la cárcel, ¿puede recibir o recibe los presos clasificados en el 3º grado? ¿Cuál es la función que tiene el educador o educadora social en esta acción?

3. garduan klasifikaturik dagoen preso batek, ba ahal du heziketa sozio-hezitzailea jasotzeko aukerarik? Erantzuna baiezkoa bada, nola definituko zenuke heziketa hori? / ¿Puede un preso clasificado en 3º grado recibir una educación socio-educativa? Si la respuesta es afirmativa, ¿cómo definiría esa educación que se recibe?

- GRADUEN PROGRESIOA/ PROGRESION DE GRADOS

Presoen gradu progresioen eskubideetan, kartzelako gizarte hezitzailearen iritziak, txostenak eta ikuspuntuak pisua edukitzen ahal du? Zergatik? / En los derechos de progresión de grado de los presos, ¿puede tener peso la opinión, el informe y el punto de vista del educador social carcelario? ¿Por qué?

Gradu progresioak gauzatzeko emakumezkoek gizonezkoek baino zailtasun gehiago edo gutxiago dituztela uste duzu? Arrazoitu zure erantzuna. / ¿Cree que las mujeres tienen más o menos dificultades para realizar progresiones de grado que los hombres? Razone su respuesta.

- **EMAKUMEENTZAKO FORMAKUNTZA KARTZELAN/ FORMACIÓN PARA LAS MUJERES EN PRISIÓN**

Kartzelan, kartzelak eskaintzen dituen formakuntza ezberdinak jasotzeko presoak kondizio edo baldintza zehatz batzuk bete behar ditu, zein dira preso batek bete beharreko kondizio edo baldintza horiek? / En la cárcel, para recibir las diferentes formaciones que ofrece la cárcel el preso debe cumplir unas condiciones concretas, ¿cuáles son esas condiciones que debe cumplir un preso?

Ze formakuntza (kurtsoak) mota eskaintzen du kartzelak emakumeei? Ze iritzi duzu formakuntza hauekiko? / ¿Qué tipo de formación (cursos) ofrece la cárcel a las mujeres? ¿Qué opinión le merece esta formación?

Formakuntza hauetara apuntatzeko emakumeentzat zenbat plaza egoten dira normalean? / ¿Cuántas plazas hay normalmente para mujeres para apuntarse a estas formaciones?

Formakuntza hauek gauzatzeko kartzelak berak tresna edo herramientak eskaintzen ahal ditu? Ala bada, materiala eta baliabideak egokiak direla uste duzu? / ¿La propia cárcel puede ofrecer herramientas o instrumentos para llevar a cabo estas formaciones? ¿O es que cree que el material y los recursos son adecuados?

Formakuntzan gizarte hezitzailearen figura ahal dago? Ala bada, formakuntzaren arloan ze funtzio (orientazioa, ikerketa, esku-hartzeak betetzen du hezitzaileak? / ¿Existe la figura del educador social en la formación? ¿Qué función (orientación,

investigación, intervención) cumple el educador o educadora en el ámbito de la formación?

AMATASUNA KARTZELAN / LA MATERNIDAD EN PRISIÓN

- HAURDUNALDIA ETA ERDITZE PROZESUA / EMBARAZO Y PROCESO DE PARTO

Espainiar Estatuan dauden emakumezko kartzela eta kartzela “misto” guztietan egoten ahal dira ama eta beraien seme alabentzako moduloak? Kartzela guztietan ez badaude, zein uste duzu dela ez egotearen arrazoia? / ¿Existen módulos para las madres y sus hijos en todas las cárceles "mixtas" del Estado español? Si no están en todas las cárceles, ¿cuál cree que es la razón de su ausencia?

Kartzelan, ama eta hauen seme alabentzat egokitutako modulua, fisikoki, non kokatzen da? Kokapena egokia dela uste duzu? / ¿En la cárcel, el módulo adaptado para las madres y los hijos donde se ubica físicamente? ¿Cree que la ubicación es adecuada?

Ze ezaugarri nagusik ezberdintzen dute modulo arrunt bat amatasun modulo batetik? Nahiz eta ezberdintasun handiak eduki, ama eta haurraren beharrak asetzeko egoki moldatuta dagoela uste duzu? Zergatik? / ¿Qué características principales diferencian un módulo normal de un módulo maternal? Aunque tenga grandes diferencias, ¿cree que está bien adaptado para cubrir las necesidades de la madre y del niño? ¿Por qué?

Haurdun dauden emakumeak haurdunaldian mugitzen ahal dituzte amen modulura edota erditu ondoren mugitzen dituzte? Zure aburuz, zein izango litzateke momenturik egokiena haurdun dauden emakumeak moduluz mugitzeko? / ¿Pueden mover a las mujeres embarazadas durante el embarazo al módulo de madres o las mueven después del parto? ¿Cuál crees que sería el momento más adecuado para que las mujeres embarazadas se muevan de forma modular?

Presoa amen modulura mugitu edo amen modulua duen kartzela batera aldatzen dutenean trasladoak egoera normal batean gauzatzen diren bezala gauzatzen dira? Traslado hauetan amaren beharrak eta zaintzak egoki asetzen direla uste duzu? Zergatik? / ¿Cuándo desplazan a la presa al módulo de madres o a una cárcel con el

módulo de madres? ¿Cómo se llevan a cabo los traslados en una situación normal? ¿Crees que en estos traslados se satisfacen adecuadamente las necesidades y cuidados de la madre? ¿Por qué?

Haurdunaldi bitartean amak medikuekin harremanak edukitzeko baldintzak edo aukerak zeintzuk dira? Haurdunaldi bitartean gauzatzen dien errebisioak kartzelako medikuak edo kartzela kanpoko medikuak gauzatzen ahal ditu? Zein izan da zure esperientzia haurdunaldi bitartean medikuekin? / ¿Cuáles son las condiciones u opciones para que la madre se relacione con los médicos durante el embarazo? ¿Puede el médico de la cárcel o el médico de fuera de la cárcel llevar a cabo las revisiones que les practica durante el embarazo? ¿Cuál ha sido su experiencia con los médicos durante el embarazo?

Kartzeletako gizarte hezitzaileek haurdunaldia eta amatasuna lantzeko programak gauzatzen ahal dituzte? Ze funtzio izaten dute gizarte hezitzaileek haurdun dauden presoekin? Gainontzeko presoekin konparatuz, ezberdintasunen bat ahal dago? / ¿Los educadores sociales de las cárceles llevan a cabo programas para trabajar el proceso de embarazo, parto y maternidad? ¿Qué función tienen los educadores sociales con las reclusas embarazadas? En comparación con el resto de presos, ¿hay alguna diferencia posible?

- **AMA ETA HAURRAREN BIZI BALDINTZAK / CONDICIONES DE VIDA DE LA MADRE Y EL NIÑO**

Ama eta haurra kartzelan bizi diren 3 urte horietan amari ezarrita zaion graduak influentzia ahal du haurrarengan? Erantzuna baiezkoa bada, zertan eragiten dio haurrari, hau da, zeintzuk dira haurrak jasan beharreko baldintzak? / ¿El grado que se le aplica a la madre en los 3 años que la madre y el niño viven en la cárcel puede influir en el niño? Si la respuesta es afirmativa, ¿en qué afecta al niño, es decir, cuáles son las condiciones que debe soportar el niño?

Ama eta haurraren higiene pertsonala asetzeko ematen dizkieten baliabideak nahikoak direla uste duzu? Arrazoitu zure erantzuna. / ¿Cree que los recursos que les proporcionan para satisfacer la higiene personal de la madre y el niño son suficientes? Razona tu respuesta.

Ama eta haurrak higie pertsonalarentzat beharrezkoak diren objektu guztiak eskuratzeko aukera ahal daukate? Zergatik? / ¿La madre y el niño pueden acceder a todos los objetos necesarios para la higiene personal? ¿Por qué?

Erditzerakoan eta ondoren, amak eta haurrak medikuekin harremanak eduki eta mantentzeko baldintzak edo aukerak zeintzuk izaten dira? / ¿Cuáles son las condiciones u opciones para que la madre y el niño se relacionen y mantengan con los médicos durante y después del parto?

Haurdunaldi ondoren, amari eta batez ere haurrari gauzatzen zaizkien errebisioak kartzelako medikuak edo kartzela kanpoko medikuak gauzatzen ahal ditu? / Las revisiones posteriores al embarazo a la madre y sobre todo al niño, ¿puede realizarlas el médico carcelario o el médico extrapenal?

Zure esperientzian oinarriturik, zein izaten da medikuek presoarekiko eta haurrerekiko duten jarrera? / En base a su experiencia, ¿cuál es la actitud de los médicos hacia el preso y el niño?

Haurrak kartzelan pasa lezakeen hiru urteetan haurraren estimulazio sensorialak, motorrak eta hezkuntza beharrak asetzeko baliabide eta errekurtoak egokiak direla uste duzu? Arrazoitu zure erantzuna. / ¿Cree que en los tres años que el niño podría pasar en la cárcel los recursos y recursos para satisfacer las estimulaciones sensoriales, las motores y las necesidades educativas del niño son adecuados? Razona tu respuesta.

Amari eta haurrari kartzeletan ematen zaien elikadura egokia eta beraien beharretara egokitzen dela uste duzu? Zergatik? / ¿Cree que la alimentación adecuada que se da a la madre y al niño en las cárceles y se adapta a sus necesidades? ¿Por qué?

Kartzelan, ama eta haurraren espazioak errespetatzeko baliabideak edo errekurtoak ahal daude edo eguneko 24h ak ama eta haurrak batera pasatzen dute? / En la cárcel, ¿hay recursos para respetar los espacios de la madre y el niño? ¿o pasan las 24h del día la madre y los niños juntos?

Haurra, kartzelatik egun batzuez kanpora ateratzeko baldintzak zeintzuk izaten dira? Eta nola gauzatzen da prozesu hau (haurrak kanpoan eman ditzaken egun

kopuruak, astez edo asteburuan gauzatzen diren...)? Erabaki honetan kartzelako gizarte hezitzailearen ikuspuntuak pisua edukitzen ahal du? / ¿Cuáles son las condiciones para que el niño salga de la cárcel por unos días? ¿Y cómo se lleva a cabo este proceso (cantidades que el niño o niña pueden aportar fuera, que se llevan a cabo durante semanas o fin de semana)? ¿En esta decisión puede tener peso el punto de vista del educador social de la cárcel?

Kartzelak, ama eta haurra beharrak barne biltzen dituen programa hezitzailearik ahal du? Erantzuna baiezkoa bada, azaldu programa eta zure iritzia eman. / ¿La cárcel tiene algún un programa educativo que incluya las necesidades de la madre y el niño? En caso afirmativo, explica el programa y opina.

- **3 URTE ONDOREN / 3 AÑOS DESPUÉS**

Haurrak 3 urte betetzen dituenean, haurra eta ama bereizi egiten dituzte, beraz zein dira espainiar estatuak batera mantentzeko eskaintzen dituen baliabideak? Horretarako ze baldintza edo kondizio bete behar dira? Baliabide hauek ama eta haurren beharrei egokitzen direla uste duzu? Errekurtso hauetara bidaltzeko garaian, gizarte hezitzailearen iritzia eta txostenak eragina edukitzen ahal du? / Cuando el niño cumple 3 años, separan al niño y a la madre, ¿cuáles son los recursos que ofrece el estado español para mantenerlos juntos? ¿Qué condiciones o condiciones hay que cumplir para ello? ¿Crees que estos recursos se adaptan a las necesidades de la madre y los niños? ¿Puede influir la opinión e informe del educador social en la remisión de estos recursos?

Espainiar Estatuak eskaintzen dituen baliabide ezberdinetara joateko baldintzak bete ezean, zeintzuk dira ama eta haurraren arteko harremana lantzeko eta mantentzeko dauden aukerak? Baliabide hauek (bisita, vis a visa, konbinetziako visa...) harremana mantendu eta lantzeko egokiak direla uste duzu? Zergatik? / Si no se cumplen las condiciones para acudir a los diferentes recursos que ofrece el Estado español, ¿cuáles son las posibilidades para trabajar y mantener la relación entre madre e hijo? ¿Crees que estos recursos (visita, vis a vis, visa de combinación) son adecuados para mantener y trabajar la relación? ¿Por qué?

3 urterekin bai haurraren baita amaren bizitzan ematen den aldaketa hori prestatzeko edo lantzeko, heziketan oinarritutako programa ezberdinak ahal

daude? Baiezkoa bada, azaldu. / ¿Existir diferentes programas basados en la educación para preparar o trabajar ese cambio que se da tanto en la vida del niño como en la de la madre? En caso afirmativo, explíquese.